

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!

DONOSTIATIK ARANORA

**Korrontearen  
kontra, bi gazte /14**



2018ko irailaren 29a, larunbata ::: 271 zk. ::: [www.kronika.eus](http://www.kronika.eus) :::

■ ASTIGARRAGA

## Kizkiak morez jantzita, Sagar Uzta jaian

Ostegunetik ari dira ospatzen uzta berriaren festa, baina biharkoa izango da egun nagusia. Aurten, sagarrak biltzeko kizkiak morez jantziko ditu Harituz elkarteak.

BIHAR ospatuko dute Sagar Uzta jaia, Astigarragan, goizetik arratsaldera luzatuko den festarekin. Uzta berriaren aurreneko muztioa egin eta dastatzea izango da ekintza nagusietako bat, baina horretarako, aurrez bilduko dituzte sagarrak, kizkia bereziekin: morez jantziko ditu Harituz elkarteak. Biharko egun handia baino lehen, bi zita izango dira gaur: Santiomendin mendi buelta, eta Indoor txapelketa. /11

■ HERNANI

### Etxebizitzaren Astea, datorrena

«Etxebizitza duin eta eskuragarri baten alde», Etxebizitzaren Astea antolatu du Kaleratzeak Stopek, datorren asteartetik. /2

■ ASTIGARRAGA

### Partehartzeak eztabaida, Plenoan

Ostegunean egin zuen Plenoa Astigarragako Udalak, eta partehartzearen inguruan izan zen eztabaida; besteak beste, ordenantzen aldaketarekin. /12

■ EREÑOTZU

### 'Inpernuko' berezia gaur, frontoian

Emanaldi berezia eskainiko du gaur, Xabi Solano Maiza trikitalari ereñotzuarrak: *Inpernuko*, frontoian, 22:00etan hasita. /15

■ ARANO-GOIZUETA

### Euskaraldirako, izenematea zabalik

Euskaraldian parte hartzeko, batzordea sortu dute, bai Aranon eta bai Goizuetan; eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea: *Ahobizi* edo *Belarriprest* izanen dira? /15



## Lizeagan festa lehertu da

Txupinazoarekin hasi ziren Lizeagako festak eta gazteenak izan ziren protagonista nagusiak. Gaur helduek hartuko dute erreleboa. /4-5

### GAUR KRONIKAN

**Hernani /2-6**  
Orain Presoak, Gaztelekua, kirolak, eskelak...

**Urumea Lanean /7-9**

**Zinemaldia /10**

**Astigarraga /11-13**  
Elkarbizi, Jasota Bezala, Kizkia, EH Bildu, kirolak...

**Aranon /14-15**

**Goizuetan /15**

**Ereñotzu /15**

<b>SEYCHELLES</b> Urrian. Madrilik hegaldia 8 eguneko bidala. 4* hotelean gosaria barne	1630 €
<b>AZORES</b> Urrian. Madrilik hegaldia 7 gau 4* hotelean gosaria barne	299 €
<b>GRAN CANARIA</b> Urrian. Bilbotik hegaldia 7 gau 3* hotelean pentsio orria	554 €
<b>RIVIERA MAYA</b> Abenduaren 17an. Madrilik hegaldia 5 gau 5* hotelean DENA BARNE	890 €
<b>VIENA: URTE BUKAERA</b> Abenduaren 23an. Barzelonatik hegaldia 4 gau 4* hotelean, gosaria + bixtak + Urte Bukaerako festa berezia	1160 €
<b>CROACIA-BOSNIA</b> Madrilik hegaldia 8 eguneko zirkuitua, pentsio osoan + bixtak	928 €
<b>NORUEGA, FIORDOAK</b> Madrilik hegaldia 8 eguneko zirkuitua, pentsio osoan + bixtak	1245 €
<b>THAILANDIA</b> Madrilik hegaldia 10 eguneko zirkuitua, pentsio osoan + bixtak	1480 €

<b>PARIS</b> Abenduaren 6an. Madriltatik hegaldia 3 gau 2* hotelean, gosaria barne	360 €
<b>ESTAMBUL</b> Abenduaren 6an. Bilbotik hegaldia 4 gau 3* hotelean gosaria barne	628 €
<b>VENECIA</b> Abenduaren 6an. Madriltatik hegaldia 4 gau 3* hotelean gosaria barne + bixta	691 €
<b>NUEVA YORK</b> Abenduaren 2an. Bilbotik hegaldia 5 gau 3* hotelean + bixta	1345 €

[www.bidaibila.eus](http://www.bidaibila.eus)  
2019ko apirilaren 22an  
Ikasleentzat itxas bidala

**HERNANI**  
BIDAIAK  
Urbeta, 6  
943 33 00 49

JARRAITU:

## URUMEA HERRIGUNEA

# Urumeako eraikin zaharra hartu du HerriGuneak

Sorkuntza gune bihurtu nahi da eta gaur auzolana egingo dute 11:00etatik aurrera. Bilera eskatu eta egingo dute Udalarekin.

URUMEA HerriGunea bilakatu dute, Urumea ikastolaren eraikin zaharra. Ostiralean sartu ziren bertan, Tilosetan elkartu ondoren. Eta datozen egunetarako, dagoeneko antolatu dituzte zenbait ekintza.

Atzo asanblada irekia egin zuten: «irekia esaten dugu, zuen partehartzea ezinbestekoa delako proiektu honetan», jakinarazi dute: «HerriGuneako gela guztiek badaukate izaera bat; baina edu-

kiontzia ez du zertan edukia baldintzatu. Gehienetan, espazioa baino, erabilera delako garrantzitsuen». Gaur, berriz, auzolana egingo dute, goizeko 11:00etan hasita: «espazioetan egin daitezkeen ekintzak edota dekorazioak pentsatzea izango da helburua. Lasai eta konfiantzaz etorri; auzolana ahalik eta gozagarrien dinamizatzen saiatuko gara eta!». Eta ondoren, 19:00etan, merienda

eta otsoaren jolasa antolatu dute. **Udalarekin, harremanetan** Eraikina Udalarena izanik, HerriGuneako kideak Udalarekin harremanetan jarri dira, eta gaia bideratzen ari dira. Bilera baterako jarri dute zita, egoera lantzeko. Udalean, Hirigintza Batzordean aztertu izan dute eraikinarekin zer egin, eta mahai gainean dago gaia. ||

eta otsoaren jolasa antolatu dute.

**Udalarekin, harremanetan** Eraikina Udalarena izanik, HerriGuneako kideak Udalarekin harremanetan jarri dira, eta gaia bideratzen ari dira. Bilera baterako jarri dute zita, egoera lantzeko. Udalean, Hirigintza Batzordean aztertu izan dute eraikinarekin zer egin, eta mahai gainean dago gaia. ||

## ORAIN PRESOKAK



Tilosetan aurkeztu zituzten ekitaldiak eta egin zuten deialdia urriaren 20eko manifestaziora joateko.

# Presoen alde manifestaziora eta ekitaldietara deialdia, Sarek

«Korapiloa azkar askatzeko presoen eskubideak errespetatu behar dira. Urriaren 20an egingo da manifestazioa Donostian.

ORAIN Presoak lelopean datorren urriaren 20an Donostian manifestazioa antolatu du Sarek eta atzo Hernaniko Sarek deialdia egin zuen bertaratzeko. Oharra zabaldu zuen manifestazioari atxikitzeko: «Komunikabideetan asko hitz egiten da bakeaz eta bizikidetzaz, baina borroka armatua desagertua egon arren, sufrimendu handia eragiten duen espetxe-politika aplikatzen jarraitzen du oraindik Madrileko gobernuak. Korapilo hori lehenbailehen askatzeko honako puntu hauek lehenbailehen kon-

pondu beharrekoak direla uste dugu: Urruntzea. Astebururo 269 presoen senide eta lagunak gutxienez ehunka kilometro egitera behartzen ditu. Gogoratu 29 urtetan 16 hildako eta hainbat zauritu utzi dituela urrunketak errepideetan; Larriki gaixorik dauden presoek osasunerako eskubidea eta behar duten arreta medikoa bermatua izan behar dute; eta, legearen arabera, kaleratu egin behar dituzte; Europako legeriak dioena aplikatuz, estatu desberdinetan betetako zigorrak aintzat hartu behar dira; eta

presok lehenengo gradutik ateratzea. Ia euskal preso guztiak daude lehenengo graduan, eta legeriaren aurka doan neurria da».

### Aurretik, beste ekimen batzuk ere egingo dira Hernanin

Hala ere ekitaldi desberdinak antolatu dira Hernanin urriaren zehar. Urriaren 5ean bizikleta-martxa bat, 19:00etan, Zinkoeneatik. Urriaren 18an, kontzentrazioak egingo dira sarrera-irteeretan: Zikuñagan, Galarretan, Zinkoenean eta Txantxillan. ||

## GAZTELEKUA

# Larunbatetan adinaren arabera, orduak

Gaztelekuko lokala ez da oso haundia eta denei harrera egiteko banatu dira.

GAZTELEKUKO zerbitzua adin tarte desberdinetako gazteei dago zuzendua, eta lokala oso haundia ez denez, larunbatetako zerbitzua adinen arabera banatu da ordu desberdinetan. 16:30etatik 18:30etara: DBH 1 eta 2 adin tarteko gazteentzat egongo da irekia, 12-14 urte bitarteko gaztetxoak dira hauek.

18:30etatik 20:30etara berriz

DBH 3 eta 4ko adin tarteko gazteentzat, 14 eta 17 urte bitartekoak, egongo da zerbitzua.

Hau larunbatetan bakarrik gertatuko da. Beste egunetan zerbitzuaren ordutegia: asteartetik ostegunera 17:00-20:00 eta ostiraletik igandera 16:30-20:30 da.

Kontakturako bidea: [gaztelekua@hernani.eus](mailto:gaztelekua@hernani.eus) eta 943 33 32 12. ||

## ZERBITZU SOZIALAK

### Energia-pobreziari aurre egiteko laguntzak, pentsionistei

Energia pobrezian bizi diren pentsionistentzat laguntzak bideratuko ditu Udalak. Gutxieneko pentsioa eta RGIa kobratzen dutenei karta bidaliko die Udalak, baina gehiago dira diru-laguntza hauek jaso ahal izango dituztenak. Laguntza jaso dezaketen ala ez, bakarka, modu pertsonalizatuan aztertuko da pentsionista bakoitzaren kasuan, eta beraz, Udalak dei egin die denei, Zerbitzu Sozialetan hitzordua hartzeko: 943 55 78 54. ||

## KONTSUMITZAILEEN BULEGOA

### Argindarra ordaintzeko laguntza

Argindarra ordaintzeko gizarte-bonua jada jasotzen duten herritarrek urriaren 8a baino lehen berri behar dute eskaera. Aurrenekoz eskatu nahi dutenentzat irekita geratuko da epea. Enpresa elektrikoetan eskatzen da. ||

## ARRIATSU ESKOLA

### Bazkarirako izena eman daiteke

Pilarika egunean, hilaren 12an, urteroko bazkaria egingo dute ikasle ohiek Arriatsuko eskolan, eta izenematea zabalik dago: 661 212 773 (Karme) edo 652 758 952 (Arantxa). 28garren urtea izango da bil-tzen direla. Hilaren 10ean da izena emateko azken eguna. ||

## PORTU ELIZATXO



Koro Etxeberriak entzun zituen auzotarren balorazioak.

### Lehenengo balorazioa, auzotarrek

Udaleko ordezkariekin bildu ziren asteazkenean Portu eta Elizatxoko bizilagunak eta udaberrian, mugikortasunaren inguruan, hartu ziren erabakien balorazioa egin zuten. Hasierakoa positiboa izan da. ||

## ■ KALERATZEA STOP

# «Kaleratzeak gaur egun ez dira murriztu»

Datorren astean Stop Kaleratzeak elkarteak Etxebizitzaren Astea hasiko du ekitaldi desberdinekin eta elkarteko Kike Riañok dio «oraindik ere arazo larria da. Moduak aldatu dira, baina borrokak jarraitzen du».

STOP Kaleratzeak Etxebizitzaren astea antolatu du datorren asteartetik, urriaren 2tik, hasita. «Etxebizitza duin eta eskuragarri baten alde Hernanin antolatu da. Eta tartean zubia dagoenez urriaren 20ra arte iraungo du», dio Kike Riañok, Stop Kaleratzeakeko kidea.

Gaur egun komunikabideetan lehenengo mailako albiste izateari utzi zioten orain urte batzuk, bai oraindik ere arazo larria da. Riañok gogoratzen du. «Azken zazpi urteetan kaleratzeak ez dira jeitsi, mantendu egin dira. Aldatu dena da hasieran etxebizitzak zirela eta gaur egun berriz alokairua ordaindu ezin dutenak kaleratzen direla. Baina arazoak jarraitzen du. Honelako astea antolatzea beharrezkoa da».

## Sei urtetan lorpen haundiak egin ditugu

Riañok elkarteak sei urtetan lortutakoak hitzegiten du. «Sei urte daramatzagu lana egiten Hernanin eta hori ospatzeko antolatu dugu. Urte guzti hauetan gauza asko egin ditugu. Etxe kaleratzerik gabeko herria izendatu da; gelditu eta bideratu egiten dira kaleratze batzuk eta protokoloa jartzen da martxan. Etxebizitzaren udal mahaia biltzen da bitartekaritza egiteko. Kaleratzea gelditzea posible ez bada, saiaterako da mahai hori beste etxebizitza bat eskuragarri jartzen. Hernanin martxan bi kasutan jarri da eta irtenbidea eman genien. Biak ziren alokairuaren inguruan».

Hori orain urte bete inguru gertatu zen eta Riañok dio «zo-

Kongresuan Etxebizitzaren Lege berria eztabaidatuko da eta onartu edo ez ikusteko dago

rionez Hernanin ez da kaleratze kasu gehiago egon. Etxebizitzaren mahai permanente bat dago eta bestea zabalagoa da. Orokorrean 10-12 pertsona gaude eta protokoloa zehaztu eta martxan jarri da. Azken boladan hutsik dauden etxebizitzak alokagailu eskuragarri nola jarri ari gara lantzen. Hernanin oso altu daude alokairuak, nekez aurkitu daitezke 600 euroan alokatu daitezkeen etxebizitza eta aurkitzen bada etxebizitza traketsa izaten da. Alokairu eskuragarria bultzatzeko bilerak egin ditugu etxebizitza jabeekin. Bankuekin ere egin ditugu bilerak, nahiz eta oraingoz eskuak garbitu. Auzoz auzo zenbat etxe dauden hutsik ari gara biltzen prezioak merketzeko».

Etxebizitza publikoaren parkea askoz ere zabalagoa egitea ere eskatzen ari dira. «Ez da erraza, baina saiaterako ari gara. Europako hainbat hirietan ohikoa da, Vienan esaterako. Alokairuak oso eskuragarriak dira. Hemen arazoa dugu horrekin oraingoz ezer gutxi egin delako».

Baina horiek ez dira lortu den gauza bakarrak. «Mikrokredituen funtsa bultzatu eta martxan jartzeko lagundu da. Gaur egun 20 mikrokreditu inguru daude. Hernanin Erabaki prozesuaren barruan propo-



Kike Riaño Stop Kaleratzeak elkarteko kidea.

satu eta irten zen. Bazterketa sozialean erortzeko arriskua badago ematen dira». Riañok jendea animatzen du beraiekin kolaboratzera «gauzak lortzen diralako».

## Hitzaldi eta mahai ingurua egongo dira, eta esperientzi berriak aurkeztuko dira

Hitzaldi, mahai-inguru, eta solasaldiak lau izango dira guztira eta bertan informazio asko emango da gaiaren, esperientzia berrien eta legeen inguruan. Espainia Europatik zigortzen ari dira kasu askotan. «Gehiegizko klausulak daudelako. Esaterako diru batzuk berreskuratu daitezke eta horren inguruan hitzegingo da jardunaldietan. Bigarren aukeraren legea ere

badago. «Enpresentzako dauden EREak bezalaxe. Pertsona fisikoek ere egin dezakete».

Etxebizitzaren Legea ere ezagutaraziko da. «Orain gutxi Madrilgo kongresuan eztabaidatzea onartu da eta zain gaude ea onartuko den edo ez. Lege horren arabera ordainean ematea da zutabe nagusia. Ordaindu ezin baduzu pisua bueltatzen duzu, baina zorra ezabatzen da. Kaleratzerik ez, alokairu eskuragarria bultzatu, etxebizitza soziala haunditu eta hornikuntzak bermatuta izatea dira legearen beste oinarrietako lau».

Urriaren 17an esperientzia berrien txanda izango da. «Bertan Kataluniako esperientzia kooperatibistak ezagutaraziko dira».

## ETXEBIZITZAREN ASTE

### Urriak 2, asteartea

**19:30, Biterin:** Nola berreskuratu hipotekan behar ez bezela ordaindutako dirua. Zorren aurrean, bigarren aukeraren legea.

### Urriak 4, osteguna

**19:30, Plaza Berrin:** Hernaniko kaleratzeak Stop-en batzar publiko eta irekia. «Guk proposatzen dugun etxebizitza legea».

### Urriak 16, asteartea

**19:30, Udaletxeko Aretoan:** Mahai ingurua alderdi politikoen ordezkariak eta kaleratzeak STOPeko ordezkaria.

### Urriak 17, asteazkena

**19:30, Iraolako areto nagusian (Gabriel Zelaia):** Etxebizitzaren erabilera esperientzia berriak; erabilera lagatzeko kooperatibak, hiri masoberia. Abaraska Erabilera Lagatzeko Kooperatiba, Donostia. Sostre Civic Kooperatiba, Bartzelona.

### Urriak 20, larunbata

**13:00, Alde Zaharreko balkoi batean:** Kale Antzerkia, Kale Gorrian. Barsani konpainia.

### 20:30-22:00, Tilosetan:

Kontzertua: Etxebizitza duin eta eskuragarria. Bertsolariak eta raperoak.

### 23:30-01:30, Tilosetan:

Kontzertua: Etxebizitza duin eta eskuragarria. Kantautoreak, J. Tiro eta El Quinto Con Tenedor taldeak.

Eta azken egunean kale antzerkia eta kontzertuak eskainiko dira. Bertsolari, rapero eta kantautoreekin. Hori urriaren 20an izango da. ■



**ZU 2AK 1UZ**  
Urretxu-Zumarraga KILOMETROAK 2018  
URRIAREN 7AN

## Zatoz gurekin autobusez!

### Hernanitik Urretxu-Zumarragara

**Bazkideek: 10€**  
 <12 urtekoak: 8€  
 Gairotzekoak: 12€

**Ordutegia:**  
 Itzea: 09:00etan Asteingandegian (Hernan)  
 Buelt: 19:00etan Urretxu-Zumarraga

**Izena emateko:**  
 Urriaren 4ra arte  
 Doberan: Larramendi 11, behea.  
 943 33 27 99  
 dobera@dobera.eus

Antolatzaileak




■ LIZEAGAKO JAIK GIBELALDE AUZO ELKARTEA

# «Bi urte pasata lortu dugu Lizeagako Jai Batzordea sortzea»

*Gibelalde da Lizeagako Auzo Elkarte, bihar arteko jaiak antolatzen dituen, besteak beste. Auzoa eraberritzeko lanean dihardu, baita ere, nahiz eta zailtasunak dituela onartu: «Hernaniko auzo ahaztua da, 'vintage' auzoa».*



Gibelalde Auzo Elkarteko kideak atzoko festa hasieran.

**2016. urtean, Gay Murreko patioaren lanengatik, urrian egin behar izan ziren festak, aurrenekoz. Gerora, data hori mantendu egin da. Nolatan?** Data horretan mantentzea erabaki genuen, ez zuelako bat egiten gainontzeko auzoekin. Gainera, garai honetan jende gehiago dago bai laguntzeko, eta baita festekin gozatzeko ere.

Lehen, Madalenekin kointziditzen zuen, eta orain, San Migelekin. Ez genituen beranduago ospatu nahi eguraldiak okerrera egiten duelako, egunak motzagoak direlako...

Era berean, oporrak bukatu zirenetik ia hilabete pasa da, eta jendeak dagoeneko festarako gogo haundiagoa dauka, beraz, partehartzea altuagoa da.

Zentzu horretan, izena ere aldatu egin diogu, eta Madalena Jaiak beharrean, 'Lizeagako Jaiak' dira orain.

«Bazkari herrikoierako 140 txartela ateratzen dira, eta ez dute egun bat ere irauten!»

**Berrikuntzarik ba al da aurten?**

Berrikuntza nagusia da festen iraupena murriztu egin dela. Lehen ostiraletik igande gauera arte izaten ziren; aurten, aldiz, igande eguerdian bukatuko dira, nahiz eta mus txapelketa igande bazkalosterako utzi dugun. Egia esan nahikoa berandutzen zitzaigun.

Atzoko haurren xake txapelketa ere bada nobedadea. Xakea oso estimatua da auzoan. Musika karroza ere berria da, auzoko adinekoek dantza

pixka bat egin dezaten!

**Herritarren aldetik, zer nolako erantzuna dute festek?**

Jendeak festetan partehartzen du, baina gutxi laguntzen du. Dena den, bi urte pasata, lortu dugu Lizeagako Jai Batzordea sortzea, 14-15 kiderekin.

Era berean, egun horietan zehar jende gehiago egoten da laguntzeko eta parte-hartzeko prest!

**Eta zer izaten da arrakastatsuen?**

Jana dagoenean izaten da jende gehien. Esate baterako, bazkari herrikoierako 140 txartela ateratzen dira, eta ez dute egun bat ere irauten! Haur eta gaztetxoek ekintzek ere harre- ra ederra izaten dute.

Bestalde, igandeko tortilla lehiaketa ere arrakastatsua

izan ohi da. 10-12 tortillekin hasi ginen, eta aurreko urtean 30 izan genituen! Gainera, ondoren, pintxoak egiteko erabiltzen ditugu sagardo dastaketan, eta hemen ere, jende askok hartzen du parte.

**2016an ere, beste kontu garrantzitsu bat izan zen auzoan: Lizeaga 3.0 partehartze prozesua.**

2016 urte osoan zehar izan zen prozesu partehartzailea. Erantzuna ona izan zen parte hartu zutenen aldetik; partaide kopurua, aldiz, urria.

Helburua zen armiarmasarea sortzea auzoa eraberritzeko, Auzo Plazarekin hasiko zena eta beste hainbat proposamenekin jarraituko zuena, auzoa berrurbanizatzeko.

**Azkenaldian fatxadak aldatzen ari dira etxe askotan.**

Hori da arazoa. Egun, hirigintza ikuspegitik auzoa berrurbanizatzen duten bakarrak bizilagunak dira.

Duela 50 bat urteko hoditeria bera daukagu! Hirigintza osoa ere, garai hartakoa da. Hernaniko auzo ahaztua da, 'vintage' auzoa. Eta bitxikeria gisa, esan behar dugu auzo honetan lau alkate bizi izan direla!

Gure elkartearen izena ere hortik dator: Gibelalde, atzeko aldea.

**Hortaz, Auzo Plaza da aurreneko pausua. Nola dago eraberritzea?**

Plazaren diseinua auzolanean egin genuen, udaletxean aurkeztu genuen. 2017ko urriaren 2an, festen ondoren, hasi ziren

hormigoia jartzen, eta hiru hilabete eman zituzten lanean. Baina udaletxeak ez du proiektua bere osotasunean errespetatu. Gure aldetik, auzolanean egin genuen muralaren zati bat; ideia da pareta osoan egitea, baina fatxaden eraberritzea dela-eta, geldituta dago. Hortaz, guk egin genezakeena egin dago; udaletxeak egin beharreko jarraipena, aldiz, geldirik dago, hau da, lorategia eta altzariak.

Beraz, 'inpas' batean gaude, espero genuena baino gutxiago egin da. Eta pentsatzen dugu: urtebete badaramakigu plaza- rekin, beste guztiarekin zer gertatuko da?

Hilabeteak daramazkigu plazan eseritzeko aukerarik izan gabe. Dena den, egia da orain dela plaza bat egon daitekeena. Orain gaztetxoak dabilta futbolekin, lehen ez bezala!

**Etorkizuna nola ikusten duzue, beraz?**

Nazkatuta gaude. Horregatik, udalarekin bilera bat ezartzeko zain gaude. Badakigu txapuz txikiak besterik ezin ditugula eskatu, obra haundirik ezin dela egin. Azken urteetan partxeak egin dira, eta egin badira da, bertan egon garelako lata ematen.

Hernani Erabakiri esker gauzatxo batzuk lortu ditugu; beti esaten digute prozesu honetara bideratu behar ditugula eskaerak, baina gure ustez oinarritzkoak dira, mantentzen diren zuzenak.

Azken finean, etxeen mantentzearen EATA (Eraikinen Azterketa Teknikoa) badago, kaleentzat zergatik ez? ■

gotzone azkue  
leapaindegia

Gozatu  
auzoko festetan!

Lizeaga, 2 - beheko  
Hernani

  
DORRONSORO  
DE BORDA

Ondo pasa  
auzoko festetan!

Lizeaga kalea 4  
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN  
Onduegiar: 7:00-14:00 / 17:00-21:00  
Ja egunetan: 7:00-14:00

  
EMPRESA IGITA EN MARISCO

MARISCOS  
HERNANI

Javier Juanich  
609 674 344

Kala Magusa, 20 - 2020 Hernani  
943 555 156  
mariscos hernani

**AITAN - ETXE**  
TABERNA

Larramendi, 15  
943 55 00 46

Ondo pasa  
auzoko festetan!

**Euskal Pizza**

943 33 33 73  
Larramendi, 3. Hernani

**2x1**  
Lokalean bertan  
hartzeko

 Euskal Pizza Hernani

**FESTAK ONDO PASA!**

■ LIZEAGAKO JAIAK

# Jai-giroak koloreztatuko du Lizeaga

*Haurrentzako makina bat ekintza izango dira gaur, eta ez dira faltako herri bazkaria eta bingoa ere. Bihar, berriz, plan ezaguna: tortilla lehiaketa eta sagardo dastaketa.*

ATZO jaso zuten Lizeaga auzoko haurrek, marrazki lehiaketarako materiala. Eta gaur eta bihar, behintzat, koloretsu marraztuko dute auzoa, festekin gozatzeko 48 ordu baitauzkate aurretik, Lizeagan.

Hain justu, haur eta gazte-  
txoek denetik izango dute gaur, goiz eta arratsalde. Jolaserako gogoz hasiko dute eguna, baina ahaztu gabe marrazkiak bukatu behar dituztela! Izan ere, 11:30etara arte daukate entregatzeko. Eta behin lanak bukatuta, ondo merezitako hamai-  
ketakoa ere egingo dute. Gero, elkarrekin aterako dira buru-  
haundiak eta *Gautxori* txaranga, kaleak alaitzera.

Eguerdian, berriz, mahaia-  
ren bueltan elkartuko dira au-  
zotarrak. Jendetza biltzen da  
urtero, jaien larunbateko herri  
bazkarian, eta aurten ez da  
gutxiago izango. 14:30etan jarri  
dute zita, eta txartelak auzoko  
bost tabernatan daude salgai,  
12 euroan: Aitan-Etxe, Bodega  
Riojana, Pacheco, Lizarra eta Li-  
zeaga. Eta bost horietan daude  
salgai, baita ere, gaur gaueko

Herri bazkariaren ondoren, doan izango dituzte barrakak haurrek, eta bingoan ariko dira denak gero.

koadrilen afarirako tiketak, 8 euroan horiek. Dena den, afarirako posible da norberak bere afaria eramatea ere.

Afariaren aurretik, hala ere, ondo pasatzeko aitzakiarik ez dute faltako: haurrek doan izango dituzte barrakak, bingoan ere ariko dira gero denak, eta musika karroza aterako dute kalera, azkenik. Muskarik ez da faltako afalostean ere, eta pokerrean dakitenek, Pacheco tabernan daukate zita gauean, txapelketa jokatzeko.

**Tortilla lehiaketa eta sagardo dastaketa, bihar**  
Omenaldi batekin hasiko dute biharko eguna, Sandiusterrin adinekoei egingo dietena. Eta



Gaztetxoentzako xake txapelketa antolatu zen atzo Urumea ikastolaren atarian.

ondoren, festetan ezaguna den plan batekin borobilduko dute goiza: tortilla lehiaketa egingo dute aurrena, eta sagardo dastaketa gero, trikitilarien errit-mora. Toka eta bote txapelketak ere jokatuko dituzte eguerdi partean.

Arratsaldea, berriz, lasaiago hartuko dute, jaiei bukaera emateko. Mus txapelketa jokatuko dute Lizeaga tabernan, arratsaldeko 16:00etan. Iluntzeko 20:00ak direnean emango diete bukaera jaiei. Ordura arte, aprobetxatzea onena! ||

**LIZEAGAKO JAIAK**

**GAUR, larunbata**

- 10:00, Umeentzako jolasak.
- 11:30, Lehiaketarako marrazkien bilketa, eta umeentzako hamaiketakoa.
- 12:00, Buruhaundiak eta *Gautxori* txaranga.
- 14:30, Herri bazkaria.
- 16:00, Barrakak umeentzat dohainik.
- 17:30, Bingoa.
- 19:00, Musika karroza.
- 21:00, Koadrilen afaria.

- 22:30, Musika Djen eskutik.
- 23:00, Poker txapelketa, Pacheco tabernan.

**BIHAR, igandea**

- 10:30, Omenaldia adinekoei, Sandiusterrin.
- 11:30, Tortillak emateko ordu-muga, lehiaketan parte hartzeko.
- 12:30, Sagardo dastaketa eta trikitixa.
- 12:30, Toka eta bote txapelketak.
- 16:00, Mus txapelketa, Lizeaga tabernan.
- 20:00, Jaien bukaera.



**egin zotz!**  
ASTIGARRAGA eta HERNANIN

Irailetik abendura kalitatezko sagardoa bertako produktuz lagundua

**2€**  
Euskal sagardoa + euskal pintxo

<p><b>IRAILAK 20</b> Euskal Pintxo Pote Gidatua (Hernani)</p> <p><b>IRAILAK 27</b> Euskal Pintxo Pote Gidatua (Astigarraga)</p> <p><b>IRAILAK 30</b> Sagar Uzta (Astigarraga)</p> <p><b>URRIAK 4</b> Euskal Pintxo Potea (Hernani eta Astigarraga)</p> <p><b>URRIAK 5</b> AFARI MARIDATUA Tripontzi Jatetxean</p> <p><b>URRIAK 8-21</b> BAKAILAO ASTEA (Hernani)</p> <p><b>URRIAK 26</b> AFARI MARIDATUA Ipintza Sagardotegian</p> <p><b>AZAROAK 1</b> Euskal Pintxo Potea (Hernani) Euskal Pintxo Pote Gidatua (Astigarraga)</p>	<p><b>AZAROAK 9</b> AFARI MARIDATUA Ikatza Tabernan</p> <p><b>AZAROAK 15</b> AFARI MARIDATUA Errioguarda Jatetxean</p> <p><b>ABENDUAK 6</b> Euskal Pintxo Potea (Astigarraga) Euskal Pintxo Pote Gidatua (Hernani)</p> <p><b>ABENDUAK 10</b> Aferi gidatua (Astigarraga)</p> <p><b>ABENDUAK 11</b> Aferi gidatua (Hernani)</p> <p><b>ABENDUAK 14</b> Egin Zotz! bukaerako festa (Astigarraga)</p> <p><b>ABENDUAK 15</b> Egin Zotz! bukaerako festa (Hernani)</p>
---	--



■ FUTBOLA

# Hernani-Tolosa, Zubipen

16:30etan hasiko da partidua eta hirugarren garaipenaren bila irtengo dira Ohorezko erregional mailako mutilak.

PARTIDU haundia eta klasikoa jokatu da gaur Zubipen. Ohorezko Erregional mailako taldeak Tolosa hartuko du, 16:30etan, eta denboraldi ona baieztatu nahi du Alain Gerekaetxebarriak zuzentzen duen taldeak. Hernanik bi

garaipen eta berdinketa lortu ditu lehenengo hiru partiduetan eta Tolosak, berriz, garaipen bat eta bi berdinketa.

**Neskak, Erandiora bisita**  
Emakumeen Euskal Ligan, Hernanik San Lorenzon jokatuko du, Erandioren aurka, gaur 16:00etan. Hernaniarrek bost puntu batu dituzte hiru jardunalditan eta bizkaitarrek lau. Oraindik ez du galdu Hernanik eta bolada onarekin jarraitu nahi du hasiera honetan. ■

■ ERRUGBIA

# La Vilari bisita egingo dio Hernanik sari bikoitzaren bila

Bihar jokatu dute hernaniarrek, 12:00etan, El Pantanon eta Ligako partidua izateaz gain Koparako baliogarria da.

HERNANIK partidua benetan garrantzitsua jokatu du bihar, 12:00etan, Vilajoyosan (El Pantanon) la Vilaren aurka. Heineken Ligako partidua izateaz gain Koparako ere baliogarria da. Hernaniri zozketan La Vila eta Gernika tokatu zitzaizkion aurkari be-

zala, eta biharko norgehiagoka irabazteak sari bikoitza izan dezake.

Alde batetik, Ligan puntu garrantzitsuak batuko lituzke aurkari zuzen baten kontra eta bide batez pasa den asteko emaitza ahazteko balioko luke. La Vilak lehendabiziko

partidua irabazi zuen Complutenserren zelaian eta bigarrena galdu egin zuen etxean, Aparejadores Burgosekin. Hernanik lehenengo garaipena nahi du eta buru-belarri aterako dira zelaira, lortu dituzten emaitzei buelta emateko asmoz. ■

■ KIROL TABLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

ERRUGBIA			PALA - Gipuzkoako Txapelketa				
Nal. Ohorezko Milla	La Vila Hernani	El Pantanon	09ar 12:00	Nal. Nagusiak 2. maila	Eider Melariz/Bakal Zola	Hernani	Gaur 16:00
Nal. Sorkuntza Lehen	Hernani Adobis Txingudi Gizeo	Londron	Gaur 17:00	Nal. Nagusiak 2. maila	Bizkaitar 1800eko Zaldemendi	Fundelari	Gaur 16:00
Nal. Buzkad. Liga	Hernani Aldeko 50 Anaitas	Astoria	Gaur 16:00	<b>ESKU PELOTA - Bizkaitar Txapelketa</b>			
Kalekoa (04/15)	Bakal-Hernani	Uzkadi	Gaur 17:00	Nagusak	Ayala/Urteaga/Talavera	Hernani	Gaur 16:00
Industria (04/15)	Bakal-Hernani	Uzkadi	Gaur 18:00	Nagusak	Zaragoza/Urteaga/Talavera	Hernani	Gaur 17:00
<b>FUTBOLA</b>			<b>ESKU PELOTA - Txapelketa pribatua</b>				
Enak. Eskal. Liga	Enak-Hernani	Grandon	Gaur 16:00	Interdik	Jon Jara/Lox	Uztarro	09ar 16:30
Nal. Ohorezko Enag.	Hernani-Tolosa	Zubipen	Gaur 16:00	Kalekoa	Oier Gonzalez/Lox	Uztarro	09ar 17:30
Nal. Lurralde Mailako	Hernani-Mutzu	Zubipen	09ar 16:00	<b>ERRUGBIA</b>			
Nal. Enag. Pielorik	Vasconia Hernani	Tuzar	Gaur 17:00	1go partidua	Berai-Martinez/Barriola-Arrese	Celantxa	Gaur 16:00
Nal. Juk. Nuztrale	Astoria-Vila-Hernani	Ovason	09ar 11:30	2. partidua	Delenc 11/Ortiz/Rojas/Barriola II	Celantxa	Gaur 16:00
Nal. Ohorezko Ab.	Hernani-Estela	Zubipen	Gaur 16:00	3. partidua	Uztarro/Ortiz/Rojas/Barriola	Celantxa	Gaur 16:00
Nal. Juk. Ipp. Maila	Hernani-Bakal-Hernani	Zubipen	09ar 16:00	4. partidua	Uztarro/Ortiz/Rojas/Barriola	Celantxa	Gaur 16:00
Nal. Ohorezko Kad.	Hernani-Ortiz	Bakal-Hernani	Gaur 11:30	<b>SARRIBALDOA</b>			
Nal. Kad. Igo. Maila	Hernani-Lurubi	Zubipen	Gaur 16:00	Sarriena	Hernani-Lurubi	Kondogin	Gaur 16:45
Nal. Infantil Tbil.	Vasconia-Hernani	Ruzar	09ar 12:30				

■ PALA

## 25-15, hernaniarren arteko partiduan

Munduko Pilota Batzarrak urtero zirkuitu bat osatzen du selekzioan aukeratutako pilotariek. Aurten hiru hernaniar aukeratu dituzte. Ostegunean hasi zituzten partidua eta hirurak elkarren aurka aritu ziren. Irazustabarrena eta Huizik 25-15 irabazi zieten Ibañez eta Arrietak osatzen duten bikoteari. Bestetik, asteburuan zehar partidua desberdinak jokatu dira. Gipuzkoako Txapelketa, mutilak Erreterian ariko dira, eta neskak Hernanin. ■

■ PELOTA

## Arrieta eta Lizeaga, gaur Hernanin

Atzo gauetik hasi eta bihar arte CD Hernaniko pilotariek 11 partida jokatu behar dituzte; zortzi Gipuzkoako txapelketa eta hiru txapelketa pribatueta. Partida inportanteena gaur jokatzen da Hernanin, 16:00etan. Nagusi ohorezko mailan Ioritz Arrieta eta Markel Lizeagak, Zubiria-Irazustabarrena Intxurreko bikotearen kontra jokatu dute. Bestetik, pasa den astelehenean hernaniarren arteko partidua jokatu zen Aginagan. Paul Ojuel eta Bergerek 7-22 galdu zuten, Ioritz Arrieta eta Zezeagaren kontra. ■

■ MENDIRIZ MENDI

## Araotz-Orkatategi, ibilbidea bihar

Bihar, 08:00etan Atsegindegitik atera eta 6-7 orduan 18 kilometro egiteko proposamena egin du Mendiriz Mendik: Araotz-Orkatategi (869m) igoko dute, eta ibilbidean Aitzulo bisitatu. ■

■ Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatu dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**ESKERTZA**

**Nati Iriberrri Anabitarte**

Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -

Natiren senitartekoez eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.

**ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK**



**Hernanin 2018ko irailaren 29an**

**ESKERTZA**

**Maria Cristina Ansa Isasti**

Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -

Cristinaren senitartekoez eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.

**ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK**



**Hernanin 2018ko irailaren 29an**



**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora**

24 orduko tfnua.  
**943 33 10 20** [www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

- \* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- \* Beilatokiak
- \* Errausketak
- \* Lekualdatzeak
- \* Eskelak, koroak...




Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

# URUMEA LANEAN

2018-IX-29 larunbata

## «Jendea tailerrera etortzen da, errebisio orokor bat egitera, ITVa pasa aurretik»

Aldaketak egin dituzte ITV azterketaren araudian, eta zorrotzago begiratzen dituzte orain, zenbait alderdi: gurpilak, koadroan pizten diren argiak, emisioak... «Komeni da aurrez begiratu eta konpontzea horiek», azaldu du Juantxo Rodriguezek, Talleres Juantxoko arduradunak.

Maiatzean sartu ziren indarrean, autoen ITV azterketaren araudiaren aldaketak. Eta orduetik, zorrotzago begiratzen dituzte, autoaren zenbait alderdi, Europatik datozen eskakizunei erantzuteko.

Horien artean dago, aurretik ez dela izango aldeko inspektziorik, akats txikiekin. Beraz, akatsik baldin badauka autoak, ez du azterketa pasako, horiek zuzendu arte.

Horregatik, komenigarria izan daiteke, ITV pasatzera joan aurretik, tailerretik pasatzea. Ohitura horri jarraitzen diote askok dagoeneko; hala azaldu du Juantxo Rodriguezek, Hernaniko Talleres Juantxoko arduradunak: «jendea tailerrera etortzen da, errebisio orokor bat egitera, ITVa pasa aurretik. Guk dena begiratzen diogu; argiak, gurpilak, amortiguazioa... Ea ondo dagoen, eta bestela, konpondu edo aldatu».

Nabarmendu du, gurpilak izaten direla ohikoena: «gurpilek abixatzeko modu bat daukate, markatxo bat gurpilaren dibujotan bertan; eta marka horretara iristen denean desgastea, aldatu egin behar dira.

Normalean, 30.000 kilometro edo bost urte dituztenean, aldatu behar izaten dira gurpilak. Tailerlean begiratu, eta edozein gurpil mota aldatzen dugu».

Hain justu, gurpilen kasuan ere gogortuko dira azterketak; orain, zorrotzago begiratuko dute, behar duten tamainakoak ote diren, homologatuta dauden, eta zenbateko desgastea daukaten gurpilek. Gutxienez, 1,6 milimetroko *dibujoa* izan behar dute. Eta gainera, ardatz bereko gurpilek, marka, modelo eta neurri berekoak izan beharko dute.

### «Orain oso kontrolatua dago azterketan, autoak zenbat kutsatzen duen»

Orain zorrotzago begiratzen duten beste aspektu bat, kontrol koadroko *txibatoak* dira. Ez dute bakarrik begiratzen piztuta edo itzalita dauden, batzuek egiten dutelako *txibatoa* itzali, akatsa konpondu beharrean.

*Txibato* horiek hiru dira, nagusiki: «motorreko aberia dagoela dioena da garrantzitsuena. Horrek esan nahi du, kotxeak gehiegi kutsatzen duela, eta hori konpondu beharra dago.



Juantxo Rodriguez, tailerlean lanean.

Oso kontrolatua dago orain, ITV azterketan», dio Rodriguezek.

Beste biak dira, *airbagarena* eta ABSarena, frenoena. Horiek biak, kutsadurarena bezala, gailu elektronikoen bitartez begiratzen dituzte orain, manipulaziorik egin den detektatzeko.

Akatsak dituzten autoek, aurretik konpondu ez badituzte, ez dute azterketa gaituzteko, eta dauzkaten akatsak konpondu beharko dituzte, berriro ere ITV estazio batera gerturatu eta pasatzeko. Baina aukera dago, estazio hori aurrenekoaren ezberdina izateko. Akats larriak baldin baditu autoak, bi hilabete epean pasa beharko du ITV

azterketa berriro, horiek konponduta. Eta akatsak oso larriak izanez gero, berriz, grua batez eraman beharko dute tailerrera, eta konpondutakoan ITV azterketa pasa berehala.

### Aseguruak, kilometrajea...

Gauza gehiago ere begiratuko dira, ITVaren araudiaren aldaketarekin. Besteak beste, autoaren aseguru aurkeztu beharko da, azterketa pasatzera joatean. Eta kilometrajea ere errebisatuko dute teknikariek, kilometro kontagailuak manipulatzeko iruzurrik egitea saihesteko. Kontagailuak ondo funtzionatzen duela ere begiratu beharko dute.

Araudiaren aldaketek, 2009 urtean edo geroago matrikultatutako autoei eragingo diete bereziki. Izan ere, horiek izango dira, koadro edo zentralitaren inspektzioa pasa beharko duten autoak; Euro 5 eta Euro 6 kategorietakoak, hain justu.

Aldaketen ondorioz, eta azterketa behar bezala egiteko, formakuntza jakin bat eskatuko die araudiak, bertako langileei: formakuntza eskakizunak zorrotzagoak izango dira, eta esperientzia izatea ere eskatuko zaie, ITV estazioetara sartu nahi duten langileei. Hiru urtero, gainera, formakuntza berritu beharko dute.



Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea



Gure zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukera duzu.

Andrekale 60 - Hernani  
Tel: 943 55 43 12  
www.hatoraholkularitza.net

# «Behar guztietara egokitu daitezke autoak, baina araudiaren arabera; ez da 'barra librea'»

Elbarrientzako egokitzapenak eta aisialdirako kanperizazioak egiten dituzte Ibilkom enpresan. «Bakoitzak behar duen horretarako prestatzen ditugu, baina guztia homologatu behar da, eta ezin da edozein modutara egin. Bestela arriskutsua litzateke», dio Igor Iparragirrek.

Gaur egun gero eta ohikoagoak dira autoen transformazioak; furgonetetan bereziki. Baina eraldaketa guztiek, homologatuta egon behar dute, eta ITVa pasa behar dute, ibilgailuaren fitxa teknikoak txertatzeko egin zaion aldaketa.

«Auto bakoitza modu batera dago fabrikatuta, homologazio kontraseñaren arabera. Diseinuak orokorrak dira, baina jendeak, behar berezi batzuk dituelako, erreforma batzuk egin nahi izaten ditu», azaldu du Igor Iparragirrek, Ibilkom enpresakoak. Zentzu horretan, dena da posible; ez edozein modutara, ordea: «ez da barra librea, araudiak dio transformatu daitekeela, baina Erreformen Manuaren arabera; bestela, arriskutsua izan daiteke transformazioa egiten duenarentzat, eta besteentzat».

## Transformaziotik ITVa pasatzeraino, prozesu osoa

Behin transformazioa eginda eta laborategi batek homologatuta, ITVa pasa eta fitxa teknikoan txertatzean bukatzen da prozesua. Eta prozesu hori guztia egiten dute Ibilkomen, hasieratik bukaerara: «erreforma egiten dugu fisikoki, eta era berean, dokumentazio osoa prestatzen dugu, homologazioa egiteko; erreforma nola egin den, idatziz eta elementu grafikoekin azalduta. Gainera, montatzen diren elementu guz-

tiek ere, aurrez homologatuta behar dute. Dokumentazio guztia bilduta, laborategi ofizial batera bidaltzen dugu, eta han onartzean, adostasun txostena jasotzen dugu bueltan. Horrekin, ITVra joaten gara, eta dena prest dagoenean bueltatzen diogu furgoneta jabeari, prest», azaldu du Iparragirrek.

## Elbarrientzako adaptazioak eta furgoneta kanperizatuak

Mota askotako transformazioak daude: ibilgailu industrialenak, haundiak, ertainak, txikiak, anbulantziak... Ibilkomen, bi motatakoak egiten dituzte: elbarrientzako egokitzapenak, eta aisialdirako furgoneten kanperizazioak.

Aurreneko kasuan, elbarriaren arabera izango da transformazioa; zein behar dituen eta zer nahi duen. Horrela, izan daiteke elbarriak gidatu nahi izatea, eta beraz, gidatzeko elementuak aldatu behar zaizkio; merkatuan daudenak egokitu, daukan elbarritasunaren arabera. Aldiz, elbarriak ez badu gidatuko, autora igotzeko eta eserita joateko elementuak beharko dira: «baina ranpa bat eta aulkiarekin sartzeko espazioaz aparte, badaude beste aukera batzuk. Aulkitik eserleku-ira igotzen laguntzeko tresnak, adibidez, ez dadin autoaren atzeko aldean joan». Eta era berean, tresnak daude, garrorako elementu horiek, gur-



Igor Iparragirre, Ibilkomen bi kanperizazio modeloren aurrean.

pildun aulkiak esaterako, modu egokian eramateko. «Beharrak eta zailtasunak aztertu, eta berarentzako egokiena aukeratu behar da», dio Iparragirrek.

Aisialdirako furgoneten kasuan, berriz, behar eta gustu guztietarako elementuak daude. Furgoneta txiki eta ertainetan egiten dituzte transformazioak Ibilkomen: «aurreneko pausoa eta garrantzitsuenak, da erabakitzea nola antolatuko dugun espazioa. Guk lau antolaketa desberdin dauzkagu, lau perfil ezberdinetara bideratuta: haurrekin kanpinera joango den familia, mendira joan nahi duen bikotea... Behin hori aukeratuta, beharren arabera moduluak daude aukeran. Sukalde bat jarri daiteke, dutxa bat, hozkailua... Instalazio elektrikoak eta uraren instalazioa ere egiten dugu, sabaia altxatzeko modukoa jarri lo egiteko, edo bizikletak eramatekoak jarri. Denetik egin daiteke furgoneta batean».

## ZUBI-LANA

Lan bila dabilen herritarrek bertan mezu bat jarri nahi badu, astero jakinarazi beharko dio Kronikari; mezuan azaldu beharko du zein lan mota bilatzen duen edo zertarako eskaintzen duen bere burua. Aldiz, lana eskaintzen dutenek, iragarki merke gisa argitaratu beharko dute lan eskaintza; eta Kronikak, Zubi-Lana txokoa argitaratuko die, debalde.

Bi kasuetan, ostiral eguerdia baino lehen, iragarkiak [lan@kronika.eus](mailto:lan@kronika.eus) helbidera bidali behar dira edo 943 33 08 99 telefonora deituta azaldu. Gehienez 235 karaktere onartuko dira, hutsuneak barne.

### ESKAINTZAK

**LOGIKALINE enpresak bi lanpostu eskaintzen ditu zuntz optikoa Gipuzkoan komertzializatzeko.** Kontratu indefinitoa, formazio sendoa eta lan-talde egonkorra. Interesatuak bidali [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com) helbidera.

**Langile bat behar da sukaldean lan egiteko.** Eskarmentuduna eta lanerako gogoarekin. Deitu: 688 746 105

**Langile bat behar da sukaldean lan egiteko,** laguntzaile bezala eta arraskako lanerako. Kotxea beharrezkoa da. Deitu: 943 33 13 87

### LAN-BILA

**Neska euskaldunak** lan egingo luke sukaldari-laguntzaile moduan. Deitu: 679 297 593

**Helduak zaintzeko pertsona euskaldun bat eskaintzen da,** kotxearekin. Deitu: 678 992 110

**Kamarero edo enkofradore bezela lan bila.** Deitu: 665 424 207

**Esperientziadun andreak lan egingo luke adinekoak zaindu edota lagun egiten.** Orduetgia: goiz eta arratsalde. Deitu: 654 122 548

**Lan bila nabil pasteleri edo gasolindegri arloan. Langilea, arduratsua eta euskalduna.** Deitu: 636 506 182



943334328  
info@ibilkom.com  
www.ibilkom.com  
facebook.com/ibilkom  
ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)



**ASKATASUNEZ  
MUGITU  
ZAITEZ**







Kia Carens monobolumena.

## Kia Carens, abuztuko kotxe salduena

Estatuan gehien saldu dena izan da alde haundiarekin, Kia etxearen monobolumena: 5.114 kotxe saldu dira.

SUV izeneko autoak, errepidean zein mendian ibiltzeko *todoterrenoak*, dira gaur egun tiradizo gehien daukatenak. Baina abuztuan, ezustekoa eman du bestelako kotxe batek: Kia Carens izan da salduena, udarako hilabete nagusian. Kia etxearen monobolumenaren 5.114 unitate saldu dira estatuan, hilabete bakarrean.

Alde nabarmenarekin nagusitu da, gainera. Bigarren salduenak, Nissan Qashqai, 3.680 unitate saldu ditu; eta hirugarrenak, Renault etxearen Mégane modeloak, 3.299 unitate.

Nabarmenezkoa da, gainera, abuztuko salmentak oso altuak izan direla. Guztira, estatuan 100.000 auto baino

gehiago saldu dira: 108.442 izan dira, zehazki; joan den urteko abuztuan baino %48,8 gehiago.

### ABUZTUKO KOTXE SALDUENAK

1. Kia Carens	5.114
2. Nissan Qashqai	3.680
3. Renault Mégane	3.299
4. Fiat 500	2.451
5. Renault Clio	2.447
6. Dacia Sandero	2.340
7. Seat León	1.996
8. Renault Captur	1.958
9. Seat Ibiza	1.854
10. Hyundai Tucson	1.759

ADITUAREN  
HITZETAN

## Iturola Elkarlan Sorgunea

Andoni  
Egia  
Hernaniko  
Tokiko  
Garapeneko  
agentea.



Lehiakortasuna gainditu eta lankidetzan garatzen diren jarduerak ekonomikoak bistarazteko ireki dugun leihon honetatik, gaur Hernaniko Florida Auzoko 28an kokatzen den Iturola Elkarlan Sorguneari begiratuko diogu.

Beterri-Buruntzako Udalen garapenerako estrategia nagusienetako bat, enpresa berriak sortu eta egonkortzea da, gaintzeko garapen agentzien moduan. Gureak, baina, baditu azpimarratzea merezi duten berezitasun batzuk.

Lehenengoa da lankidetzaren berrikuntza soziala sustatzen duten enpresak kokatzen direla elkarlantegi -coworking- hone-

tan. Horrela bada, jarduerak ekonomikoa parekidetasuna, partaidetza eta garapen soziala sustatzera bideratzen duten enpresak kokatzen dira bertan.

Bigarrena da, enpresa hauek ez dutela dirutan ordaintzen hemen eskaintzen zaizkien zerbitzuak, baizik eta lan ordutan. Horrela, langile bakoitzak orduak eskaini behar dizkio sortu dugun komunitateari, baina baita ere sortzen duten balioa eskualdeko eragileekin banatu eta saretzeari, formazioak eta abar eskainiz.

Zuek ere komunitate honen parte izan nahi baduzue, idatzi [info@iturola.eus](mailto:info@iturola.eus) helbidera.//

**mitxelena**  
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

TALLERES MITXELENEN BABESTUTAKO ATALA  
Eziago Poligonoa, 21 - Zikuñaga Auzoa, Hernani  
[www.talleresmitxelena.eus](http://www.talleresmitxelena.eus)

**KIA**

The Power to Surprise

**CAPDEQUI  
ASTIGARRAGA**

Donostia Ibilbidea, 76  
Astigarraga  
943 55 04 95  
[www.capdequi-astigarraga.com](http://www.capdequi-astigarraga.com)

**Zerbitzu tekniko ofiziala  
Ordezko piezen salmenta**

"Family-like Care"  
KIA Sales & Service

## ZINEMALDIA

# Zinema atzo, gaur...eta bihar!

Beldurra, zirrara, harridura, asperraldia edo haserrea. Nola igorri zortzi egunetan zehar bizitako sentimenduak lerro batzuen bitartez? Nik ez dut formula ezagutzen. Egin dezakedan bakarra, sentimendu guzti horien atzean dauden filmak zuei gomendatzea da. Joan zaigu beste urte betez Donostia Zinemaldia, aurtengoa 66garrena, eta denetik eta denentzat topatu dugu (polemika barne).



GAIZKA IZAGIRRE BROSA

ERA honetako kronikak osatzerakoan, lehenik pelikula potoloak aipatzeko joera izaten da. Beno, potoloak baino, atzerriko izenburu esanguratsuenak, amaieran, agurtzeko eta garrantziarik apenas eman gabe, euskal ekoizpenei tartetxo txiki bat eskainiz. Ez da ba nire gaurko kasua izango, hogeitau euskal ekoizpen aurkeztu baitira 66garren Donostiako Zinemaldian, zein baino zein interesgarriagoa; Sail Ofizialean, Zuzendari Berriak, Zabaltegi-Tabakalera, Perlak, Culinary Zinema eta Zinemira sailetan eusko labela daramaten altxorak topatu ditut. Oparoena, normala den bezala, Zinemira saila. Ana Schulz eta Cristobal Fernández zuzendarien *Mudar la piel* lan bikainak eman zion hasiera, eta itxierakoa berriz Fermin Muguruzaren *Black is Beltza* izan zen. Tartean, hamabi ekoizpen hartu ditu, fikzioakoak nahiz ez-fikzioakoak, animazioak eta hala zuzendari berrien nola ibilbide luzeko zinemagileen filmak. Nabarmenenak, nire ustez, *Oreina*, *Margolaria*, *Jainkoak ez dit barkatzen*, *Black is Beltza* eta *Another Day of Life*. Zergatik? Lehena, Koldo Almandozen lan berria (*Oreina*), arrazoi askorengatik iruditu zait bikaina, baina batez ere, gertatzen diren gauza garrantzitsu guztiak ez direlako esaten. Pertsonaiak A puntutik B puntura nola edo zergatik iritsi diren azaltzeko adibidez, ez da hitza erabiltzen, irudia baizik, eta hori eskertzekoa da. Almandozek nahiago izan du ikuslea pertsona inteligentetzat hartu, eta ikusitako guztiaren batuketa, behin filma amaituta, nor-



'Oreina' filmeko zuzendaria eta aktoreak, Zinemaldian. Euskal ekoizpen nabarmenenetakoa izan da, Koldo Almandozena.

berak bere etxean egin dezala. Oier Arantzabalen debuta suposatu duen *Margolaria* ere edizio honetako sorpresa bilakatu da. Zuri-beltzean errodaturiko lan polita eta txukuna iruditu zait. Mikel Urdangarinen doinuez baliatuz, artista izateak zer suposatzen duen planteatzen du, oso interesgarria. Errealitateak fikzioa gainditzen duenaren adibide harri-garri bat ere aurkeztu digu Josu Martinez zinegileak: *Jainkoak ez dit barkatzen*. Lezo de Urreiztietaren bizitza txundigarrian oinarrituriko dokumentala eta *hau benetan gertatu al da?* esaldia garunean txertatuko dizuen lan oso entretenigarria. Baina animazioarako tartea ere egon da. Lehena, Fermin Muguruzak zuzenduriko *Black is Beltza*; Muguruzak orain dela ia hamar urte erabaki zuen kontaktu egin behar zuela Iruñeko erraldoiak 1965ean New Yorken desfilatu zuteneko istorioa. Nola, lege arrazisten ondorioz, konpartsak erraldoi beltzek ezin izan

zuten dantza egin Bosgarren Etorbidean. Eta azkenik, Raul de la Fuente nafarraren harribitxia. Aurtengo edizioiko Ikuslearen saria eraman duen animazio lan txundigarria: *Another Day of Life*. Ryszard Kapuscinski kazetari poloniar ospetsuak idatzitako izen bereko eleberrian oinarritzen da ekoiztetxe donostiarrak garatutako istorioa, eta Kapuscinski beraren irudi biziduna da filmaren protagonista. Ezinbestekoa.

#### Sail Ofizialeko polemika: 'In Fabric' eta 'High Life'

Baina azkenerako uzten baditut ere, atzerriko ezinbestezkoak ere aipatu nahi nituzke. Sail guztietan kanabera jaurti ostean, arrain ugari harrapatu ditudala esan dezaket bai, baina dastatu ostean, Getariko bisiguaren adinako zaporea dutenak ez dira asko izan. Apuntatu ongi izen hauek, datozen hilabeteetan Euskal Herriko zinema aretoetara iristeko aukera asko baitituzte. Sail Ofizialek guztien gainetik

bi izen goraiapatuko ditudan arren, hasieran aipatu dudana polemika bi filmekin lotu da zuzenean; lehena inor epel utzi ez duen proposamen deskribaezina: *In Fabric*. Zinta pop, bortitz, gordina, lotsagabe eta ustekabekoa. Argi dago Peter Strickland zuzendariaren zinema ez dela ikusle guztien gustuko izango, ez baitagoelako publiko guztietarako diseinatu, baina proposamen ausartak eta desberdinak gustuko badituzu, hau izan liteke zure aukeratua. Eta bigarrena, Claire Denis zuzendari bikainaren *High Life*, bitxia (oso), deserosoa (oso), perbertitua (oso) eta beldurgarria (oso), baina oraindik ez dakit gustatu zaidan ala ez...

#### Bereziki apuntatzekoak: 'Quién te cantará' eta 'El Reino'

Polemika alde batera utziz eta bitxia badirudi ere, Sail Ofizialek zeharo liluratu nauten bi izenak estatu espainiarretik datoz. Lehena, Carlos Vermut

zinegilearen *Quién te cantará* zoragarria. Bere aurreko lanarekin (*Magical Girl*) txunditua utzi baninduen, hemen ere ez da atzean geratu, Almodovar, Bergman eta Hitchcocken estiloa uztartu dituen zinta lilurgarria estreinatu baitu. Bigarrena, aldiz, *El Reino*, Sorogoyen zuzendariaren lan berria. Antonio de la Torre eta beste hainbat aktoreren lan paregabeaz baliatuz, Espainia ustelearen erradiografia oso entretenigarria eta frenetikoia egitea lortu du. Urteko pelikuletako bat zalantzarik gabe.

Gainerako sailetan, maila oso orekatua (eta altua) antze-man badut ere, udazken-negurako etxeko-lanak izan ditazun, derrigorrez ikusi behar dituzun beste hiru izen jaurtikoz dizkizut: Joaquín Phoenix eta John C. Reilly protagonista dituen *Sisters Brothers* western mamitsua; maisulan izatetik oso gertu geratu den Alfonso Cuarónen *Roma* (baietz aurtengo sari gehienak eraman) eta *Girl* drama lazarria. ■

## ■ SAGAR UZTA JAIA



Herenegun egin zuten aurtengo Sagar Uzta Jaiaaren aurkezpena Udalak eta eragileek.

# Kizkiak morez jantziko dituzte, Harituzen eskutik

I. Sagar Uzta Erronka Indoor txapelketa izango da gaur, 10:00etan hasita, Foru Plazan. Bihar izango da, egun haundiena.

ADIN nagusitasuna beteko du igandean Sagar Uzta festak, eta ohi bezala, bihar ospatuko dute herri guztiak antolatutako ekitaldiarekin. Horren aurretik, ordea, hainbat ekintzekin aritu dira giroa berotzen herenegundik. Horiek guztiak aurkeztu zituzten ostegunean Zorione Etxezarraga alkateak, Felix Etxeberria Fruiteleko presidentek, Antton Arka herriko taldeen izenean, Egoitz Zapiainek sagardogileen ordezkari bezala, baita Unai Agirre ere, Euskal Sagardoaren izenean.

### «Elkarrekin egindako lanari esker»

Astigarraga eta sagardoa lelopean, «programazio oparoa» osatu dela azaldu zuen Etxezarraga alkateak, Udalak berak, sagardogileek eta herriko eragileek «elkarrekin egindako lanari esker» sortutakoa, hain zuzen. Eta «elkarrekin jarri dezakegu balioan», onartu du. Denen artean egindako lana nabarmendu zuten Antton Arkak herriko taldeen izenean, baita Egoitz Zapiain sagardogileak ere.

Izan ere, nabarmendu zuen «Sagar Uzta duela 18 urte herri txertatuta» dagoen festa dela.

### Morea, aurtengo kolorea

Eta hain zuzen, taldeen indarraren islada, herriko talde eragile batek koloreztatuko du biharko Sagar Uzta jaia. Harituz Elkarrekin eskutik, saga-

rrak biltzeko kizkiak morez jantziko dituzte. Horrek aurreratu egingo du 2019ko Emakumearen Nazioarteko egunerako Sagardo Etxea elkarrekin prestatzen ari den ekimena: Sagardoetxeako sagarrondoak morez jantziko dituzte, emakume sagardogileen laguntzarekin.

**Sagardoa eta kirolak bat, gaur** Berrikuntzarik ere izango da aurtengo. Gaur goizeko 10:00etan hasita, I. Sagar Uzta Erronka Indoor txapelketa egingo dute Foru Plazan. Zortzi talde lehiatuko dira eskia, arrauna eta bizikleta uztartzen dituen proba honetan.

**Egun haundiena, biharkoa** Arkak esan bezala, bihar egingo du bat «herriaren izaerak»

Foru Plazan. Sagardogileekin batera, bertan izango baitira herriko hainbat talde. Sagarrak jaso, txikitu eta prentsatzeko aukera izango dute bertaraten direnek. Eta ondoren, 13:00ean izango da ohiko topa herrikoia.

### Sagarra, presente beti

Sagarraren festa da, beraz, ez da sagarrak faltako, nahiz eta Felix Etxeberriak esan zuen aurtengo uzta «xumeagoa» izan dela.

Bertako sagarrak ere izango du bere txokoa; Euskal Sagardoa jatorri-deiturak ostegunean hasi baitzuen *Egin zotz!* kanpaina Astigarragan. Gainera, Unai Agirrek esan bezala, sagarraren festa izanda, «zer litzake Euskal Sagardoa, sagarrak gabe?». ■

## VIII. Sagar Uzta 2018

### GAUR, larunbata

**09:30**, Sagar motak ezagutz.

Santiagomendiko Sagardo Bidean zeharko mendi-buelta familian.

**10:00**, Sagar Uzta erronka indoor. Foru Plazan.

### BIHAR, igandea

**Sagarraren Jaia, Foru Plazan.**

**09:30**, Txirriskla Txistulari Taldearen diana.

**10:30-12:00**, Sagar postre lehiaketa. Postreak frontoian entregatu behar dira.

**10:30-12:00**, XI. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalean\* izen-emateak plazan.

**11:00-14:00**, Sagarraren azoka:

sagar mermelada tailerra; sagarraren erakusketa, dastaketa eta salmenta; sagardo eta muztio dastaketa; saski, txertaketa, et abarren erakustaldiak; herriko baserri-tarren produktuen salmenta; eta trikitilariak herrian zehar.

**11:00**, Muztioaren elaborazioa: sagar-biltzea, jotzea eta zanpatzea bertaritutako familien laguntzarekin.

**12:30**, Sagar Dantza eta kirikoketa.

**13:00**, Txalaparta eta 2018ko uztako lehenengo muztioaren topa herrikoia.

**14:30**, Herri Bazkaria.

**17:00**, Afizionatuen pelota partiduak.

\*Izen-emateak: 943 550 575/  
info@sagardoarenlurraldea.eus.

## ■ ELKARBIZI TALDEA

# «Xantaia ekonomikoa» jasan dutenekin, zita

Datorren asteazkenean izango da hitzaldi-ikastaroa, 19:00etan, kultur etxean.

HERNANITIK Astigarragara mugituko dira, oraingo honetan, Elkarbizi taldeko kideak, eta bertan eskainiko dute urriko hitzaldi-ikastaroa. *ETAren xantaia ekonomikoaren azpiko bizitza esperientziak* izango dituzte aztergai urriaren 3an, hau da, datorren asteazkenean. Arratsaldeko 19:00etan hasita izango da hori, kultur etxeko areto nagusian.

Saioa irekia da, baina izena eman behar da datorren astearte, urriaren 2a baino lehen: [ganboiturri@gmail.com](mailto:ganboiturri@gmail.com) helbidetan.

### Barandiaran eta Lazpiur, hizlari

Elkarbizik azaldukoaren ar-

bera, helburua da «zerga iraultzailearen xantaiaren azpian bizi izan zirenen drama ikusaraztea. Biktimak izan direnengan -eta beraien senide eta lagunengan- sortutako kalte eta izua ezagutzera ematea». Izan ere, Deustuko Unibertsitatearen ikerketa baten arabera, «jasotako mehatxua beren pribatutasunean mantendu zuten».

Gaiaren inguruan hitz egiteko, beren esperientzia kontatuko dute Juanma Barandiaran Etxeberriak, Goierriko Goieki Agentziaren zuzendaria izan zenak, eta Migel Lazpiur Lamarianok, Confebask enpresariaren elkarteko lehendakaria izan zenak. ■

## ☞ JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

### GEZURRA ARI DU...

#### ATERTUKO OTE?

Joan den uztailaren 21ean Felix Zuberro jaunak (Astigarragako EAJko presidentek) artikulua argitaratu zuen «HORRELA, EZ» izenburuarekin Urumeako Kronikan. Idatzi horretan bi gezur esaten ditu, biribil-biribilak: 1 Oraingoan gonbidapena ez da Gure Esku Dagotik etorri Ezker Abertzaletik baizik eta, 2 Ezker Abertzaleak monopolizatu du Gure Esku Dago.

Idatzia irakurri eta sinistu ezinik, gezur horiek salatzen erantzuna argitaratzea pentsatu genuen, baina ez genuen egin. Nahiago izan dugu, horren ordez, Astigarragako EAJko presidente Felix Zuberri eta alkate den Zorione Etxezarragari hitzordua eskatu eta gaia argitu. GED dinamika anitza eta bateratzaileria da eta horrelako gaiak plazara atera aurretik landu egin behar direlakoan gaude.

Bi bilera egin ditugu. Bilera horietan EAJri eskatu diogu okerra zuzentzeko eta horrelako gezurrik esaten ez ibiltzeko, baina ez dugu horrelakorik lortu. Uztailean idatzitakoa berretsi baizik ez dute egin. Ez dugu ez zentzuzko azalpenik jaso, ez okerra zuzentzeko

asmorik entzun.

Hori dela eta, honakoa argi eta garbi adierazten dugu:

1. Ekaineko giza katearen haritik antolatutako ekimenean parte hartzeko Astigarragako EAJri eta EAJko udaltaldeari egindako gonbidapenak Astigarragako Gure Esku Dagok egin zituen.

2. Astigarragako GEDren jardun eta dinamikan inork ez du ezer monopolizatu nahi izan eta ez du ezer monopolizatu. Parte hartu duen pertsona orok bere izenean parte hartu du erabakitze eskubidearen alde, inor inoren gainetik edo azpitik jarri gabe eta inoren jatorri ideologikoari edo praktika politikoari begiratu gabe.

3. Hurrengo ekimenetan ere astigarrak guztiei egingo dizuegu dei erabakitze eskubidearen aldeko ekimenetan parte hartzeko. GED zeharkako eskubidearen alde dagoen pertsona ororentzat atea zabalzabalik duena.

4. Garai bateko mamu zaharrak eta gezurrak alde batera uzteko garaia da, lankidetzan aritzeko. Ziur gaude. Atertuko du.

**Kizkitza Galartza Arregi**  
**Astigarragako Gure Esku**  
**Dagoren izenean**

## UDALA PLENOA

# Partehartzeak piztu zuen eztabaida Plenoan, ordenantzaren aldaketa onartzearekin batera

EH Bilduk salatu zuen, gardentasunaren kontra dijoala ordenantzaren aldaketa; eta EAJk erantzun zion, praktikan ez duela ezer aldatuko. Onartu egin ziren, baita ere, 2019 urterako zergak, eta udal langileen soldaten igoera. Autobus zerbitzuaren lizitazioaren gaia jarri zuten mahai gainean, besteak beste, galderen puntuan.

ASTEAZKENEAN ez, ostegunean egin zuen Astigarragako Udalak, ikasturte berriko aurreneko Plenoa. Eta bozkatu ziren gai guztiak onartuta, partehartzearen inguruan sortu ziren eztabaidak, bereziki. Besteak beste, Partehartze Ordenantzaren aldaketa onartu zutenean.

Uztaileko Plenoko akta aho batez onartu ondoren, 2019rako zerga ordenantzak ere aurrera atera zituzten, baina EAJren sei botoekin bakarrik. Izan ere, abstenitu egin ziren EH Bildu eta PSE-EE, alegazio bidez aldaketak proposatuko dituztelako.

## Partehartze Ordenantza, bi aldaketa

Eta segidan, heldu zioten Partehartze, Informazio eta Gardentasun Ordenantzaren aldaketari. Zehazki, bi aldaketa proposatu eta onartu ziren, EAJ eta PSE-EEren botoekin; biak ere, 31garren artikuluan: aurreneko atala ezabatu da, zioena 9.000 eurotik gorako kontratazioetan, gutxienez hiru aurrekontu eskatu behar dituela Uda-

lak (orain legeak zehaztutakoaren arabera egingo da, 15.000 eurotik gorakoetan, alegia); eta bigarren atala aldatu da, 5.000 eurotik gorako informazioa ematera behartuz Udala, eta ez 9.000 eurotik gorakoetan, orain arte bezala.

EH Bilduk kontra bozkatu zuen, eta Andoni Gartzia azaldu zuen, «gardentasunaren aldean ez dijoan neurria» dela aurrenekoa: «gure apustua izan zen exijenteagoak izatea legearekin. Zuen erabakia izan da exijenteak ez izan eta gardentasunean atzerapauso bat ematea». Zorione Etxezarraga alkateak erantzun zion, horrela lege eta partehartze betebeharrak betetzen direla, eta Jon Arregi ogasun zinegotziak gehitu zuen, ordenantza aldatuko dela legeari erantzuteko, baina praktikan ez duela ezer aldatuko: «operatiboagoak izateko egin da aldaketa». Emaila enpresa bati bidali beharrean, hiru enpresari bidaltzea besterik ez dela erantzun zion Gartzia.

Hurrengo puntuan, alkate-

Aho batez onartu zuten, udal langileen soldatak igotzea; %1,5 2018ko urtarrilean hasita, eta %0,25 gehiago uztailetik.

ak azaldu zuen Astigarragaren esku geratu direla, Elio-enea eta Larraburu baserrien jabetzako lurrak, eta Udalaren esku dagoela zer egin. Gartzia Donostiako Udalari, «eskaera honi erantzun eta epaia betetzea. Aurreko legealdian hasi genuen prozesu hori, muturre-raino eramateko asmoarekin. Hala ere, esatea Udalaren esku dagoela bertan zer egin, barre egitea da; dagoeneko badakigu zati haundi bat Aldundiak hartu eta kamioientzako apartakalekua egingo duela».

Ondoren, aho batez onartu zuten, udal langileen soldaten igoera: %1,5 igoko dira 2018ko

urtarrilaren 1etik, eta beste %0,25 uztailearen 1etik hasita.

## Ergobia ibilbidearen aldaketarekin, eztabaida

Beste gai batek ere piztu zuen eztabaida: Ergobia ibilbidearen aldaketa puntuala. Onartu egin zuten, EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin, eta EH Bilduren kontrakoekin: «partehartze prozesu barregarria egin zen, alegazio epetik kanpo egin zen herritarrekin saioa. Gainera, testuak akats larriak ditu; teknikoari esan genion, baina akatsek hor jarraitzen dute, eta horrela onartuz gero, arazo larriak ekarriko dizkigu. Badirudi promotorak eta Udal Gobernuak presa daukazuela proiektua aurrera ateratzeko», salatu zuen Gartzia.

Etxezarragak azaldu zuen, oraingoz antolaketa bakarrik ari direla aztertzen, eta informazio bilera zela herritarrekin egin zutena; «baina gero, herritarren ekarpenak jaso eta txertatzeko konpromisoa hartu dugu».

Ubarburuko zabalpenari ere eman zioten onarpenera segi-

dan. Eta azkenik, aholkularitza eta defentsa juridikoaren zerbitzua Araudi SLP enpresari esleitzea erabaki zen, EAJ eta PSE-EEren botoekin; abstenitu egin zen EH Bildu.

## Autobus zerbitzuaren lizitazioaz, galderen puntuan

Galderen puntuan, zenbait gai jarri zituen mahai gainean Gartzia. Autobus zerbitzuaren esleipen prozesuaren inguruan, Udalaren informazio falta salatu zuen: «lotsagarria da mugikortasun zinegotziak ez jakitea zertan dagoen kontua, herriarentzako arlo horretan dagoen gai garrantzitsua den oraintxe». Alkateak erantzun zion, zerbitzua esleitzen denean egin ahal izango dituztela ekarpenak, legez.

URA agentziaren proiektu berriaren eta kamioien apartakalekuen inguruan ere galdetu zuen Gartzia. Bietan, erantzun zioten proiektuak bukatu gabe edo behin betiko osatu gabe daudela, eta batzordeetan emango dela horien berri. ||

## KIZKIA TALDEA



Zabala, Petritegi eta Eulako ordezkariak asteazkenean, Kizkia Taldeko kideekin batera.

## Adunako Zabala sagardotegiarentzat, aurreneko saria

Adunako Zabala sagardotegia izan da Kizkia Taldearen hemeretzigarren Sagardo Txapelketako garailea, 116 punturekin. Astigarragako Petritegi izan zen bigarren, 115,5 punturekin; eta Urrietako Eula sailkatu zen hirugarren, 113,5 puntu lortuta. Txapelketa irailean zehar jokatu dute, eta hain justu, asteazken honetan egin zuten finala, Gure Izarra elkartearen. Beste hiru finalista ere izan ziren, hasierako hogeitaudeetatik: Adunako Aburuza, Usurbilgo Urdaira eta Aiako Izeta sagardotegiak izan ziren, hurrenez hurren. ||

## ASTIGARTE

## Apuntatzeko, azkeneko aukera

Datorren astean, urriaren hasierarekin batera, hasiko dira Astigarte elkarteak antolatzen dituen pintura eta marrazketa ikastaroak. Gaur izango da azkeneko aukera horietan izena emateko; kultur etxean egin beharko da, gaur goizean. ||

## GAZTELEKUA

## Beste bi ekintza, asteburu honetan

Asteburu honetan ere Gaztelekuko atek irekita egongo dira gaur eta bihar. Paintball jardura egingo dute herriko gazteenek gaur; eta bihar, aldiz, eskulan tailerra antolatu dute platerak egiten ikasteko. ||

## SAGARDOA

## Sagardo txapelketa herrikoia, Usurbilen

Euskal Herriko Sagardo Txapelketa Herrikoia dagozkion lau finalurrekoak burututa, gaur izango da finala Usurbilen. Epaimahai herrikoieko kideek afariarekin batera dastatuko dituzte finalera iritsi diren 12 sagardoak, eta beren iritziekin erabakiko da nork jasoko duen aurtengo txapela. Afaria arratsaldeko 20:00etan hasiko da, Usurbilgo frontoian. 41 sagardotegik hartu dute parte, tartean, hamar astigartar. ||

EH BILDU PRENTSA-OHARRA

# «Donostiara joateko %9 eta %10 murriztuko dira A2 eta A1 lineak»

Lehiaketara aterako duen proiektua prest dauka Foru Aldundiak. «Proposatutako murrizketak onartezinak dira», EH Bilduren ustez.

UDAN aurkeztu zuen Foru Aldundiko Mugikortasun sailak Buruntzaldeako autobus zerbitzuen proiektu berria, aurre proiektuaren alegazioetarako epea bukatuta. Bertan «proposatutako murrizketak onartezinak dira», EH Bilduren ustez.

**«Denborak arrazoia eman digu»**

EH Bilduk azaldu duenez, «asteazken zehar Donostiara joateko %10ean eta %9an murriztuko dira A2 eta A1 lineak, hurrenez hurren; %22 eta %39 gutxiago larunbatetan eta %34 eta %48 gutxiago, igandetan».

A3a ere baztertu egin dutela nabarmentzen dute: «Eta A3a kendu zuten jarri zituzten autobus berezien ia erdiak kenduko dituzte». Diotenez aurretik EH Bilduk ohartarazi zuen kentzea, «murrizketa gehiagoren aurrerapena zela. Denborak arrazoia eman digu».

**«PPren diskurtsoa bereganatu dute»**

Astigarragako EH Bilduk kriti-

katu du: «EAJ eta PSE-EEk murrizketak justifikatzeko, hainbestetan gogor kritikatu duten PPren diskurtsoa bereganatu dute. PPrekin bat eginez, euren ustez zerbitzuaren errentagarritasun ekonomikoa izan behar da oinarri zerbitzu publikoari eusteko».

«Astakeria» da hori, EH Bildurentzat: «Zerbitzu publikoen oinarriak ezin du errentagarritasun ekonomikoa izan, errentagarritasun soziala baizik. Zerbitzu publikoek desberdintasun sozialak murriztu eta aberastasuna hobeto banatzen dute».

EH Bilduren ustez, kaltetuekin gazteak, ikasleak, langileak, emakumeak eta adineko pertsonak izango dira: «hain zuzen erakundeek gehien babestu behar dituzten herritarrak».

Astigarragari dagokionez, diote: «gero eta pertsona gehiago bizi da Astigarragan baina zerbitzu berdina edo okerragoekin». Eta konparatzen dute: «sagardotegietara joateko doako autobusa guztion artean ordaintzeko lotsarik ez dute

izango EAJ eta PSE-EEk».

**Murrizketek, eraginak**

Kopuruan ez ezik, zerbitzuan ere eragina izango duela dio EH Bilduk: «autobus gutxiago, autobusak leporaino beteta, lanera edo eskolara iristeko etxetik askoz lehenago atera behar izatea...». Baita enpleguan ere: «autobus gutxiago, langile gutxiago».

Horregatik guztiatik «gogor» kritikatu dute zerbitzu berria. Eta «murrizketa hauek salatu eta ahal bada, geldiarazteko», ekimenak iragarri ditu.

**Informaziorik ez, inkestan**

Mugikortasun Astearekin EAJK «itxurakeria» egin duela diote. Orain, autobus zerbitzuari buruz inkesta egin du Udalak, «herritarrei murrizketak datozela informatu gabe», nabarmentzen du EH Bilduk. Honen helburua salatu du: «herritarrek inkesta betetzen entretenu, atzeko atletik, autobusetan %10 eta %48ko murrizketak aplikatzen dituen bitartean».

TXIRRINDULARITZA

# Urko Semperenak zilarrezkoa, Euskal selekzioarekin

Valentzian izan ziren aurreko asteburuan Espainiako Elite eta 23 urte Azpiko pistako txapelketak. Bertan izan zen Urko Semperena.

VALENTZIAN izan zen aurreko asteburuan Urko Semperena astigartarra, Euskal selekzioarekin Espainiako Elite eta 23 urte Azpiko txapelketan. Baleareetako taldeak eskuratu zuen urrea 04:19:34 denbora egin da; eta zilarrezkoa lortu zuen Euskal selekzioak, hiru minutu gehiagorekin. Hirugarren izan zen bertako taldea, Valentziarra.

**Bakarkako pertsekuzio-proba, aurrenekoa**

Ostiralean hasi zuten txapelketa bakarkako pertsekuzio-pro-

barekin. Hamazazpi txirindularik jokatu zuten, eta bertan, hamargarren izatea lortu zuen Semperenak. 04:44:898 denbora egin zuen estreinaldian, eta partehartzaile gazteena izanda. Bere kategorian, aldiz, bigarren izan zen; aurrenekoa izan zen talde balearreko Xabi Canellas.

Scrach proba izan zen bigarrena; honetan ere, ederki arituta, finalean egotea lortu zuen, eta bigarren izan zen, berriro ere, 23 urte azpiko kategorian.

Nabarmenezkoa da erraz

irabazi ziola azkeneko esprinta tropelari. Beste balear bat izan zen txapeladun: Pau Llarenas.

**Azkeneko proba, erabakigarriena**

Igandean izan zuten azkeneko proba, taldeko pertsekuzio-proba, hain zuzen, baina larunbatean bertan egin zuten sailkapeneko. Urko Semperena, Illart Zuazubiskar, Aitor Rey eta Aitor Larrañagarekin batera sailkatu zen Baleareetako taldearen kontra urrezkoaren bila ateratzeko. Azkenean, bigarren egin zuten, zilarrezkoa lortuz. ||

ESKU PELOTA

**Espainiako itzulikoa bihar, Bartzelonan**

Oier Gurutzealde astigartarrak aurreko astean jokatu zuen Eneko Maizen kontra Espainiako Kopako finaleko joanekoa. Iruñean izan zen eta 15-7 eta 15-6 galdu zuen. Itzulekoa Bartzelonan jokatuko dute, bertan egongo baitira urriko mundialeko instalazioak bisitatzeko. Igandean izango da norgehiagoka, 11:30etan, Vall D'Hebronan. ||

**Bi partidu bihar, frontoian**

Sagar Uza Festako programaren barruan, bi partidu izango dira bihar frontoian. Aurrenekoa, lau t'erdian, Azpiri eta Zubiriaren artekoa izango da; eta bigarrena, binaka, Labaka eta Santxezek aurrez aurre izango dituzte Salaberria eta Bergera. 17:15etan hasita izango dira. ||

FUTBOLA

**Ostadarren kontra, kanpoan**

Aurreneko bi jardunaldiak irabazita hasi du Liga, Mundarroko Erregional Preferenteetako taldeak; eta oraingo honetan, beste garaietan baten bila joango dira, Lasarte-Oriara. Ostadarren kontra jokatuko dute, Mitxelín zelaian, arratsaldeko 15:30etan hasita. Lehia polita izango da; bi partidu bakarrik jokatu badira ere, biak irabazi dituzten hiru talde besterik ez daude, eta horietako bi dira Mundarro eta Ostadar. Irabazten duenak, beraz, sailkapenaren gorenean jarraituko du, eta kontrarioari *garaiezin* etiketa kenduko dio. ||

ESKUBALOAIA

**Aurreneko partidua, Eibarren kontra**

Aurreko astean hasi zuten denboraldia Mundarroko eskubaloia taldeko neskek, Bera Bera Urdinaren kontra; gutxiatik galdu zuten, 19-20. Etxean beriz, bihar izango dute estreinako partidua, denboraldi honetan: Astigarragako kiroldegian jokatuko dute, Eibarren kontra, goizeko 11:00etan hasita. ||

DESAFIOA

**Suharri Irazustabarrenak, desafioa**

Desafioa egingo dute urriaren 12an, Urrietako Xoxokako plazan, hiru ekintzatarak. Bi bikote ariko dira lehian, elkarren kontra: batetik, Suharri Irazustabarrena astigartarra, Julen Gabirondorekin batera; eta bestetik, Urtzi Telleria eta Beñat Telleria. Eguerdiko 12:00etan hasita, hiru ekintzatarak jokatuko dute desafioa: 700 metro karratu segan, 50 jasoaldi 10 kilogramoko harri zilindrikoari (25 bakoitzak), eta 6 kilometro korrika. Saio guztia txanda librean izango da. ||

KIROL TABLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA			
Mut. Erregional Prefer	Ostadar-Mundarro	Mitxelinen	Gaur 15:30
Mut. Erregionalak 1go	Mundarro-Kostkas	Zarkumendegir	Gaur 17:30
Mut. Jubenilak Ohor. I	Mundarro-Touring	Zarkumendegir	Bihar 17:00
Nsk. Kadeteak	Mundarro-Intxaurdi A	Zarkumendegir	Gaur 11:00
Mut. Kadeteak Ohor. I	Ostadar-Mundarro	Mitxelinen	Gaur 12:30
Mut. Kadeteak 1go m	Mundarro-Zarautz	Zarkumendegir	Gaur 09:15
Infantil txiki	Mundarro-Martutene	Zarkumendegir	Bihar 11:15
SASKIBALOAIA			
Mut. Juniorrak 1go m	Mundarro-Internacional	Kiroldegian	Gaur 16:00
ESKU PELOTA			
Kadeteak eskuz binak	Mundarro-Internacional	Añorgan	Bihar 10:30
ESKUBALOAIA			
Nsk. Jubenilak	Mundarro-Eibar	Kiroldegian	Bihar 11:00

OHIANA CALPARSORO ETA NEREA ANSA

## «Lienzo txuri bat bezala da Arano; edozer egin daiteke, eta dena da ongietorria»

Orain urte eta erdi pasatxo mugitu ziren Aranora, Ohiana Calparsoro eta Nerea Ansa, Donostiatik. Alai Ondo diseinu estudio jarri zuten bertan, baina hamaika saltsatan sartu dira ordutik: «oso momentu onean iritsi ginen herrira, berehala ireki zutelako Maisuenea, eta hori sekulako aukera izan da», nabarmendu dute.

AMUARRAINAK bezala, gazteak herri txikietatik hirietara darrazkien korrontearen kontra, Donostiatik Aranora mugitu ziren, orain urte eta erdi pasatxo, Ohiana Calparsoro eta Nerea Ansa. Bertan diseinu grafikoko estudio bat jartzea ere, ez zen ohikoena izan. *Nolatan bukatu duzue hemen?*, galdetzen zieten; «bikotea ginela uste zutela da gure teoria», diote. Baina badauka bere istorioa, beraiek dioten bezala: «Nerearen familia aranoarra da, baina beti bizi izan da Donostian. Diseinua elkarrekin ikasi genuen biok, eta orduan hasi ginen proiektuak konpartitzen, nahiz eta aparte bakoitzak bere lana zeukan. Kontua da, gure proiektuari eskaini nahi genizkiola indar guztiak, horretan zentratzeko apustua egin. Baina noski, Donostian zure proiektua eduki, independentea izan... Ez genekien proiektuak zein etekin eman zezakeen», ekarri du gogora Ohianak.

Eta puntu horretan azaldu zen Arano: «nire familiak etxe bat zeukan hutsa herrian, eta hasieran, garagardo artean komentatu genuen, Aranora mugituko ote ginen... Baina broma eta broma, ia bi urte daramazkigu hemen», dio Nereak.

Sormenerako «oso espazio ona» dela diote biek: «beste giro bat daukazu hemen. Oso inguru lasaia da, sekulako isiltasuna dago, ez zaizu inor etortzen molestatzera, taberna bakarra dago eta astez askotan itxita... Beraz, ez daukazu distrakzioirik. Noski, ematen du hori horrela izango dela, baina gero hemen zaude eta edozerekin distraitzen zara; txakurrak ateratzera goaz, edo baratzean aritzeko laguntza eskatu digute, edo frontoia hemen ondoan dagoela... Azkar aurkitzen duzu beste edozer egiteko aitzakia!». Bezeroak lortzeko, ordea, bila atera behar dute, eta hori gehiago ari zaie kostatzen: «ez gara komertzialak, baina moldatzen gara. Orain, ari gara Goizueta edo Leitzara ere jotzen. Esaterako, Mendialdea Mankomunitatearekin ari gara lanean».



Ohiana Calparsoro eta Nerea Ansa, Alai Ondo estudioan.

### «Oso herri berezia da; hemen dagoen bakea da...»

Ohianak onartu du, «ikaragarri» gustatzen zaiola herria: «niretzat, hona etortzea izan ziren estimulo berri pila bat. Naturarekin harreman zuzena, jende oso desberdina, oso irekia eta gertukoa... Eta hemen dagoen bakea da... Oso herri berezia da. Badauka bere *piña*, baina aldi berean, independentzia daukazu nahi duzuna egiteko. Eta urtarok beste modu batera bizitzen dituzu. Donostian, negua negua da, eta udara udara. Baina hemen, nabaritu egiten dituzu; pila bat aldatzen da herriaren dinamika, kalean entzuten dituzun zaratak...».

Nereak, bere aldetik, nabarmendu du sekula imajinatu ere egingo ez lituzketen gauzak egin dituztela bertan: «sagarrak bildu eta sagardoa egin, txerri hilketak, gazta egiten ikasi, egurra moztu tximinia pizteko... Herriak sekulako harrera egin zigun, eta denerako oso ongietorriak izan gara».

### «Oso momentu onean iritsi ginen Aranora»

«Lienzo txuri bat» bezala definitzen du Ohianak Arano: «oso momentu onean iritsi ginen. Gu etorri eta bederatzi hilabe-

tera edo, Maisuenea ireki zuten. Eta hori sekulako aukera izan da; edozer egin dezakezu, eta dena da ongietorria, denak dauka harrera ona. Udalak guztion eskura utzi zuen, eta bakoitzak, dakiena eskaintzen du bertan; gitarra ikastaroa dela, yoga ikastaroa dela... Guk, haurrentzako tailer bat antolatu genuen gabonetako postalak egiteko, musika esperimentalarrena beste bat... Logoa eta kartelak ere egin genizkion Maisueneari, eta gauza berezi bezala, arbela. Kontseju parean badago panel bat, kartelak eta jartzeko; eta beste aldea erabat utzita zegoenez, pizarra pinturarekin margotu genuen, Maisueneako izena idatzi, eta bertan egingo den edozer, arbelan iragarri daiteke, tiza hutsarekin. Maisuaren etxea zen berez, eta hortik, edozein maisu izatera gonbidatuko duen espazio batera bideratu nahi zuen Udalak. Horregatik, maisu baten letraren antzeko batekin egin genuen logoa; eta arbela kalera atera genuen», azaldu dute.

Saltsa guztietan sartzekoak dira biak: «herrira iritsi eta aurreneko gauza, jai batzordean sartu gintuzten, inauteriak laster zetozela eta. Baina hasieran, denera berandu iristen ginen.

Izan ere, jendeak bere martxa hartuta dauka, eta bakoitzak badaki bere zeregina zein den urtero, festetan. Izan ere, jendea oso nekatuta dago, baina oso langilea da. Eta zu konturatu gabe, bat-batean gauzak atera egiten dira. Urtero egiten dute, eta ez zaie esan ere egin behar. Gogoratzen naiz aurreneko urtean, festetarako bi edo hiru aste geratzen zirela, eta zein arraroa, inork ez zuela oraindik ezer esan. Ea nola antolatuko ginen galdetu, eta dagoeneko bakoitzak berea eginda zeukan. Horregatik, aurten askoz ere lehenago hasi gara, galdetzen, proposatzen eta mugitzen. Eta pixka bat xaxatuz gero, sekulako erantzuna ematen dute».

### Onddoak protagonista, aurtengo San Martinetan

Jalki kultur elkartearen sorreran ere hartu zuten parte, Ohianak eta Nereak; eta astearte honetan bertan egin dute aurreneko bilera, ikasturtea planifikatzen hasteko: «Landa Eremuko Emakumeen Egunean, urriaren 15ean, zerbait antolatu nahi dugu Aranon; eta San Martinetan onddoen inguruko tematika izango dugu. Jendea otarrarekin joan beharrean, poltsarekin joaten da, bat bera

ere hartu ezean, buelta bat ematera soilik joan direla esateko. Baina plastikozko poltsarekin joatea ez da ona. Horregatik, otar tailer bat antolatu nahi dugu, paper birziklatuarekin. Eta sustatuko dugu sareko poltsak eramatea, plastikozkoak beharrean».

Hala ere, diote «kontuz» ibili behar dutela, saltsetan sartu bai, baina erre gabe: «garrantzitsua da, dagoena mantentzea baina modu bideragarri batean. Zaila da gauza berriak antolatzeko, edo egiten dena beste modu batera egitea. Aurten lortu dugun haundiena izan da, jailetatik animaliak kentzea. Hor bota genituen gure izerdiak... Izan zen esatea, batzuetan gauzak aldatu behar direla. Esaten zuten haurrengatik egiten zutela; beraz, haurrei utzi genien bozkatu eta erabakitzen, eta zirku tailerra aukeratu zuten. Eta izan zen garaipen totala! Frontoia bete-betea, koloretan, haur eta guraso, haundi eta txiki elkarri laguntzen taldeko ariketetan... Izugarri polita izan zen», gogoratu dute.

### Mahai jolasa sortzen

Baina saltsa guztien aurretik, diseinu grafikoko zerbitzuei eskaintzen diete eguna: kartelak, katalogoak, gonbidapenak, komunikazio estrategiak, animazioa... Eta bezeroek eskatutako lanetatik harago, proiektu propio bat ere badaukate: «mahai jolas bat sortzen ari gara, sasoiari sasoiok barazkiak zein diren ikasteko. Izango dira jokalariak satorraren kontra; ea lortzen duzun barazkiak biltzea, edo satorrak irabazi eta lur guztia izorratzen dizun. Azkenean, zure bezeroaren beharrik asetu behar dituzu, baina artista bezala, zure beharrik ere asetu nahi dituzu. Aranora etortzean, nahi genuen erabaki gure bizitzarekin zer egin, bizitzaren ahalik eta esparru gehienetan. Hori da gure esentzia pertsonala, Alai Ondo estudioarena, eta hori gure lanetan ere nabaritu egiten da. Saiazen gara proiektu bakoitzari bere esentzia ateratzen».

## EREÑOTZU KONTZERTUA



Dantza, ikusentzunezkoak eta antzerkia ere izango dira, gaurko kontzertuan. Argazkia: Gaizka Peñafiel

## Frontoia 'inpernu', gaur

'Inpernu' izeneko emanaldia eskainiko du Xabier Solano Maiza ereñotzuarrak, gaueko 22:00etan hasita, etxekoen aurrean.

ETXEAN ariko da gaur, Xabier Solano Maiza trikitilari ereñotzuarra. Eta emanaldi berezi batekin dator, gainera. Gaueko 22:00etan hasita, *Inpernu* izeneko ikuskizuna eskainiko du, Ereñotzuko frontoian.

Ez da bakarrik igoko taula gainera, hala ere. Bere bizitzako istorio kuttunenak aterako ditu jendaurrera, hainbat dantzari eta antzezlek lagunduta, eta ikusentzunezkoekin. *Ereñotzu* bere azkeneko diskoa aur-

keztuko du, eta sorpresak ere izango dira: «uste dut urduri egongo naizela», onartu du.

Kontzerturako geratzen diren sarrerak, Ereñotzuko plaza-jarriko dituzte salgai, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. ||

## GOIZUETA ESKU PILOTA

### Erakustaldia Iker Salaberriak, Muebles Polque torneoan

Txapela jantzi zuen Beñat Garmendiarekin, finalean dena ondo egin ondoren, Zubizarreta eta Sarasaren kontra (22-10).

GERO eta maila haundiagoan, eta gero eta erakustaldi ederagoak eskaintzen jarraitzen du Iker Salaberria pilotari goizuetarrak. Aurreko larunbatean, beste behin, gozarazi egin zituen Labrit frontoira gerturatu ziren pilotazaleak: dena egin zuen ondo, eta Beñat Garmendiarekin batera, Muebles Polque torneo garrantzitsuko txapela jantzi zuen, Iraitz Zubizarreta eta Joseba Sarasari finala irabazita (22-10).

Goizuetarrak berak onartu zuen, txapelketako «partidurik konplotoena» jokatu zutela. Torneoan zehar gorabeheratsu aritu ondoren, bikain moldatu ziren elkarrekin, eta aurrean oso kontrario indartsuak zeuzkaten arren, aukerarik gabe utzi zituzten. Partidu gogorra eta luzea izan zen, hala ere: 489 pilotakada jo zituzten, 53 minutu iraun zituen lehian.

Ia hasieratik egin zuten



Iker Salaberria, zabalean pilota bat jaso eta dejada egiten, aurreko larunbateko finalean. Argazkia: Fundación Kantxa Pelotazale.

ihes, Salaberriak eta Garmendiak. Kontrarioek 4-0koa berdintzea lortu bazuten ere, zuzenean joan ziren 12-4ra, eta ia erabakita utzi zuten finala. Berdinduagoa izan zen lehia hortik aurrera, baina gertura-

tzeko aukerarik ere ez zuten izan kontrarioek.

Azkenean, bederatzi tanto eginda bukatu zuen goizuetarrak, hiru pilota galduta; Garmendiak, berriz, ez zuen huts bat bera ere egin. ||

## ARANO-GOIZUETA EUSKARALDIA

### Goizuetarrak zein aranoarrak, 'Ahobizi' edo 'Belarriprest'?

Izenematea zabaldu dute, Euskaraldiaren '11 egun euskaraz' egitasmorako.

AZAROAREN 23an hasi eta Euskeraren Eguna arte, abenduaren 3ra arte, Euskaraldiaren 11 egun euskaraz egitasmoa burutuko dute Euskal Herriko makina bat herritan. Goizuetan eta Aranon ere sortu dute hori antolatze batordea, eta izena emateko zabalik daukate dagoeneko, Euskaraldian aritu nahi duten goizuetar eta aranoarrek. Internet bidez egin daiteke, [izenematea.euskaraldia.eus](http://izenematea.euskaraldia.eus) web orrian. Horretarako, aukeratu behar dute *Ahobizi* edo *Belarriprest* izanen ote diren, eta formularioa bete.

Aranoarrek, gainera, aurreratu dute postua jarriko dutela herrian, urriaren 19 iluntzean eta 21 eguerdian, izenematea errazagoa egiteko.

#### Euskera gehiago erabiltzeko ariketa, proposamena

Euskaraldiaren egitasmoarekin, «hizkuntza ohiturak astindu eta ohiko harremanetan

euskera gehiago erabiltzeko ariketa bat» proposatu nahi izan dute. Horrela, bi roletako bat hartu behar dute. *Ahobizi* direnek, euskeraz ulertzen duenari hala eginen diote, berak erderaz erantzun arren; eta ezezagunei, euskeraz eginen diete aurreneko hitza. *Belarriprest* direnek, aldiz, euskeraz egiteko eskatuko diete euskeraz dakitenei, ulertuko dietelako, nahiz eta gero erderaz erantzun.

16 urtetik gorako herritarrek eman dezakete izena, eta behin apuntatuta, herrian jasoko dute materiala; tartean, egitasmoak iraun bitartean soinean eramanen duten *Ahobizi* edo *Belarriprest* ikurra.

Egitasmoarekin lortu nahi dute, «frogatzea uste baino gehiagotan dela posible euskerazko komunikazioa; jabetzea uste baino gehiago dela euskera ulertzen duen jendea; eta hizkuntza ohiturak aldatzea erosoagoa egitea», diote. ||

## GOIZUETA-ARANO BERDINTASUNA

### Emakume baserritarren topaketa, urriaren 15ean

Leitzan eginen dute, ospatzeko Landa Eremuko Emakumeen Eguna. Izenematea zabalik dago.

LANDA Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna da urriaren 15a, eta egun hori ospatu nahi dute Leitzaldean. Horretarako, emakume baserritarren topaketa antolatu dute Leitzaldeko Berdintasun Batzordeek egun horretan bertan. Leitzako udaltxean izanen da, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara.

Bertan parte hartu ahal izanen dute, baserritik soilik bizi diren emakumeek, edota baserria diru iturri nagusi dutenek.

#### Izenematea, urriaren 12ra arte

Bertan parte hartu nahi dutenek, aurrez eman beharko dute izena. Horretarako, bi bide jarri dituzte aukeran: 948 51 08 40 telefonora deitu, edo *whatsapp*

bidez idatzi 674 08 69 26 telefono zenbakira; goizez egin behar da, 09:00etatik 12:00etara. Urriaren 12a da azkeneko eguna.

Elkargune horren helburua bikoitza da: batetik, talde horri espazioa eskaintzea; eta bestetik, hainbat tresna jartzea haien eskura: «gune honek aukera emanen du, emakume baserritarren nahien, ametsen, beharren eta etorkizunaren inguruan hausnartzeko. Agian hasiera emanen dio ahalduntze prozesu bati, agian bide baten abiapuntua izanen da. Egun horretan jakinen dugu hori».

Saioan izanen da Marian Cestau, *coach*, formatzaile eta aldaketa eta ikasketen prozesuen bideratzailea. ||

☎ **TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) | **UDALZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga)  
| **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658, **Areizaga:** 943 452708, **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037  
| **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 (Hernani) 943 33 56 44 (Astigarraga) | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103  
☒ / **Egunez: Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauz: Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941**

**EGURALDIA**  
**GAUR** Aldaketa gubi izango da gaur. Laino gehiago agertu daitezke ipar partean, baina giro eguzkitsua nagusituko da. Haizea xuabe ibiliko da, norabide aldakorarekin. **Min.15° / Max.23°**  
**BIHAR** Giro atsegina bihar ere. Eguerdira arte zerua garbi egongo da, baina gero, haizea ipar-mendebaldetik sartuko da, eta lainotzera egingo du, arratsaldean. **Min.14° / Max.23°** (euskaime)



■ TELESAILTAN ADI(K)TUA

# Nondik hasi kurtso berria? 'Maniac' gogoan izan



**AITOR CARACCILO**

IRAILAREN bueltarekin, gauza asko dira egunerokotasunak ekartzen dizkigunak. Kurtso berria hasteko momentua iritsi da askorentzat eta, oporren bukaerarekin, normaltasuna etorriko zaigu bizitzaren arlo gehienetara. Beste hainbeste tokietan bezela, mundu katodiko (eta nere kasuan telesailen mundua) ere gori gorien bueltatzen zaigu. Amerikarrek esaten duten legez, estreinu eta itzuleren *High Season* edo Denboraldi altua hasten da eta hilabete honetan; eta honek biziki markatzen du garai honetako aktibitatea.

Idea bat egin dezazuen, kalkulatu azkar bat eginez gero, hilabete hontan nire egutegian

120 telesail inguru izango dira. Erokeria hutsa? Baliteke. Baina kontutan hartu behar da telebistako kateen estreinuei, interneteko hainbat plataformak edo Sare sozialek gaur egun ere produzitzen dituztenak gehitu behar zaizkiola, edo hainbat festibalek ekartzen dizkiguten perlatsoei ere tarte bat egin behar zaiela.

Gauzak honela, zer egin? nola jakin zer ikusi? Ahal den einan hortarako gaude gu hemen. Zaila bada ere, hori guztia lerro gutxi hauetan kondentsatzen saiatuko gara eta zuentzako.

**Tv Calendar edo JustWatch tekleatu bilatzaileetan**


Esan bezala, hilabete mugitu xamarra dugu hau. ditugun estreinu guztiak erreparatzea luzeegia iruditzen zaidanez, gomendio bat egingo dizuet. Existitzen dira hainbat orrialde zuten telesailen bueltatze datak begiratzeko, berriei buruzko informazio aurkitzeko, zein kate-

tan ikusteko aukera dagoen edo bestelakoak. Horrelako dudak argitzeko nik erabiltzen ditudan biak eskainiko dizkizuet: Tv Calendar edo JustWatch. Izen hauek zuten bilatzailean tekleatuz gero, bertan aurkituko duzue zuten zalantza gehienak asetzeko moduko informazio.

Baina hala ere, galdetu nahiko bazenute zein den egunotan gehien gozatu dudak telesailen bat, Netflix plataformako MANIAC gogoan izateko esango nizuke. Zientzia fikzioa arazo mentalen azterketarekin nahastean sorturiko istorio arraro baino paregabea.

Ezohizkoa den trama jorraztea (protagonisten arazo psikologikoak tratatzeko gardenetasun eta zorrotasuna) eta lan bikaina egiten duen lantaldea. Emma Stone bikaina eta Jonah Hill txundigarria, Cari Joji Fukunagaren ohizko zuzendaritza lan gozagarria.

Besterik? Noski! Baina lasai, izango dugu eta astia hauek tratatzeko... ||



Maniac telesaila.

IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**OLASAGASTI**  
FENTSU ETA LANDAREAK

**OSTEGUNETAN BERTAN ERRETAKO PIPERRAK SALGAI**

Enkarguz ere bai 9.30etatik aurrera

**943 33 75 62**

AKARREGI POLIGONOA, 12. PABI HERNANI

**"CLARY ETXEA"**

**LIKIDAZIO TOTALA**

Urriaren 11ra arte

Gudarien enparantza, z/g. Hernani  
**943 55 23 86**

**IRUBIDE JATETXEA**

Zure jatetxea, Epelen

Epele auzoa, 7  
**943 552 490 - 667 208 702**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikako Saiburuordetzak) diruz lagundua

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA